

# ANAITASUNA

216. zenb.

1971.eko Abuztuaren 15ekoa

Jardin Txikerra, 1. BILBAO-12  
Tel. 43 18 37



UDA ETA IRUDIMEN 1971

## Ataun

### Udako ikastaroa

Urtero bezala, udako ikastaro bat eratu dauku herri honetako guraso elkarteak; baina aurten ikasleok ere laguntza eskaini dugu.

Emango diren klaseak, malla hauetan dauden ikasleentzat izanen dira: «libro de escolaridad» dutenentzat, batxilerra egiten ari direnentzat, eta «oficialia» eta «maestría» ikasten dutenentzat.

Ikastaro hau herriko «Gabilena» etxean izanen da; eta, uztailaren 12an, goizeko bederatiak laurden guttiagotan hasiko omen da.

### Euskal alfabetatzea

Hemen alpatu ditudan klase guztiak baino alpagarriagoa, euskal alfabetatzea da. Alfabetazlozko klase hauk ere guraso elkarte honek eratu dauzklugu. Ikastetxe berean emango omen dira; eta beste klaseetara doanak, alfabetazlozko klase hauetara ere joan beharra izanen du. Hau ederki dago. Gainera, klase hauetara beste edozein ere joan dalteke.

Ez da nahikoa «euskalduna naiz» esatea, euskaraz idazten eta irakurtzen jakin gabe. Beraz, guraso elkarte honi eskerrak eman behar dizklogu, euskal alfabetatze hau eratu daukulako.

### Herriko kantariak

Ba ditugu herri honetan bi kantari ere: Alerbe neba-arrebak dira. Berek egindako abestirik ez dute kantatzen, berriak baltira. Baina, hala eta guztiz ere, oso atsegingarria da haien boz ederra eta argia entzutea.

Etzarril Aranazen izan dira, bai eta Idiazabalen ere. Azken herri honetan askotan abestu dute. Eta toki gehiagotan ere izan dira. Segi aurrerai!

### Ibilaldi neurtua

Hamalru urte bitartekoak ibilaldi neurtu bat izan dute. Urte malla hau ipini dute, ikastolako haurrek eta gainerakoek parte har dezaten. Erabateko ederki dago.

P. TRIKUARRIETA  
13 (urte)

## Azpeitia

Aurreko batetan, Xabier Madinaz zenbait gauza jarri genuen. Madinari egindako kritika Luis Irlondok jaso zuen, letraren egile bera zela aitortuz.

Gu benetan alegatzen gara, Irlondok eman duen aldaketa ikusita. Bere lana euskal abestiaren promozionatzea dela esan baitauku. Bere promozionatze hau pixka bat ikusla dugu. «Contrapuntos» taldeko bat bezala, gaztelaniaz kantatzen ezagutu genuen. Diskoak ikusi besterik ez dago. Telebistan ere ikusla dugu, hain zuzen gaztelaniaz. Loiolako Irratian la egunero programa bat du, hau ere erdaraz osorik. Programa honetan ez dugu inoliz, Lete, Laboa eta abarren abestirik aipatzen entzun. Berdin gertatzen zala Donostiako Irrati batetako programan.

Bere lana, poltsikoa betetzearren ez zela zloen. Agian, honetan ere, arrazola du. Beharbada, euskal abestia promozionatzeko modua hauxe da: Salomé-rentzat abestiak euskaratu, Massielen abestiak euskaratu, Belter etxearen Gipuzkoa eta Bizkalko errepresentatzale izan, euskarazko abestiak folklorikoak beti, eta abar. Gainera, protesta abestia snobismo bat dela esanen dauku.

Kalekume batzuk glnela esaten zekun. Berak baserriaren problematika ondo ezagutzen zuela zioen.

Gaur baserriak gero eta espezializatzeko gehiago du. Esne, haragi edo beste zenbait gauzatarra dedikatzen ari da baserriarra, honetarako posibilitatea duena, noski. Izarraltz malkarrean baserri bat uztea, ez da harritzeko gauza. Bestalde, baserria ere soilik ez dago hartzerik. Beste gauzak oro bezala, baserria ere sistema baten barnean azaldu behar da. Orduan, sistema honi zenbat interesatzen zala baserriak irautea? Edo zenbat laguntzen du, baserriak irauzan?

Barka, eglia esaten badugu.

«Non da nekazaria?» esan ordez, «Non da nekazalea?» esatea berdin letorkioke Benildorm aldean Madinaren bozari.

Beharbada, ez dakigu zer den euskal abestia!

EUSKALTZALEAK

## Bermeo

### Kostera amaitu, kostera hasi

Bokart kostera, hain ilun eta arduraz beterik hasi zana, amaitu da. Hasieran euki genduan bildurra ez da kunplitu, zorionez; eta kostera geldika geldika hobeagotu egin da, eta ontzi gehienek partila politak egin ahal izan ditue. Ba dira, horregatiko, beti bezala, oso gutxi irabazi dabenak ere; kontuan euki daigun, ihazko Gabonetatik ezer irabazi barik egon direla arraintzaleak.

Baina, bokarta amaitu eta, beste kostera berri bati eutsi deitsoe gure itsasgizonek: atun kosterari, hain zuzen. Joan dira portutik ontzi guztiak, hegaluzea harrapatzeko asmoz, Galiziako uretarantz. Eguraldiak onak dira, eta hegaluzea ugari ikusten el da Itsasoan. Ea kostera hau bokartarena baino hobea dan, eta beronen hutsune guztiak betetzen diren!

### Istripua

Ekainaren 12an, Balona eta Paue bitarteko bidean, Lurdesera Bermeotar erromesez beterik joian autobus batek Istripu ikaragarri bat euki eban, zuhaltz bat joaz. Istripua, aurreko ardatza apurtu zalako izan zan. Beharbada, erdarazko egunkarietan irakurriko zenuen istripu honen berri. Hamar lagun gelditu ziren serioski zaurituak; eta eurotarik hiru, hil edo biziko zauriakaz. Alta Sabin Zubieta, frantziskotarra, pelegrirozloaren antolatzailea, Natividad Nebreja eta Eugenia Telletxea ziren honeek. Aita Zubietak hanka bat galdu eban istripuan, eta Eugenia Telletxeari ere ospitalean ebaki izan behar eutsoen.

### Euskal jaia Institutoan

Estudianteek antolatuta, euskal jai polit bat egin da herriko Instituto Teknikoan, ekainaren 13an, Bittor Egurrola eta herriko kantari batzuk parte zirela. Jai, «pro viaje de estudios» dirua batzeko muntatu eben.

### Euskara eskolan

Ikasleen gurasoel bidajutako orritxo batean dinoe monja karmelitek, datorren kursorako, euskara sartuko dabela euren kolejoan, «enseñanza general básica»ko umeentzat. Eta, aurrerantz, goragoko mailetan ere euskara sartzen joango direla. Kolejo hau neskentzako da.

Bermeon lehenengo kolejoa da, pauso hau ematen dauana; eta honegatik zorionik beroenak merezi ditue monja karmelitok. Exemplo ederra herriko beste kolejoentzati!

### Itsasmorruaren zati berria

Ekainaren 29a, San Pedro apostoluaren jaleguna, egun berezia izan zan Bermeoko portuarentzat.

Batetik, urtean urtean bezala, eta tradizioa dan moduan, San Pedoren jai ospatu zan, apostolu eta santu handi honen babesean eratu baitziren, 1353.ean, orain seihun urte, Arraintzaleen Kofradiako Ordenantzak.

«Herriko Lagunak» elkarteko umetxo dantzariak kalerik kale ibili ziren, «San Pedoren zortiko» zaharra jo eta jo.

Bestetik, portuko Itsasmorruan egin berri dan zatia bedelkatu eta inauguratu egin zan ofizialki.

Zati edo tramu honek 150 metro daukaz, eta lau urteren barruan egin da, 150 milioi pezetako presupostuaz.

Kofradiako lehendakariak hitzaldi labur batean esan ebanez, Itsasmorru hau «Bermeok behar beharrezko dauan portu handiaren bizkar hezurra da»; eta bere esperantza agertu eban agintarlen aurrean, laster portu handi hori amaituta ikusi ahal izango dogula.

Gero, Itsasmorruaren puntan, Itsaso zabalar begira, «Gaztetxu» taldeko Bermeotar neska-mutikoen auresku eta hainbat euskal dantza egin eben, agintarlen ohoretan.

A. P. B.

## Gernika

### Ibilera kaltegarriak Erreterian

Penagarria da, nik malte dodan Gernikako auzo bategatik txarto berba egitea; baina beharrezkoa dala uste dot. Ez dakit nork atara dauan; baina ba dirudi, ez dala egokia Erreterian orain loten dauan haizeak.

Nora goaz bide horretatik? Ez ote dogu hobe kontuan eukitea, zenbat izerdi bota behar dogun eguneroko janariagatik, gero beste barik alferrik galtzeko? Ez zara lotsatzen, hurrengo egunean zeuen astakeria guztiak munda guztiari gauza handi legez esaten, Zuentzat glizonkeria gizontasuna dala uste dot. Barkatu eizazue, baina harrituta nago Erreteriako talde baten jokaerarekin.

Erretereri,  
nora zoaz hortik  
Eguneroko janak  
eta edanak,  
gero danak  
baltzarenak!

F. (Gernika)

## CHILEKO KOBREAREN AUZIA

### «Burdin gorriaren» aberastasuna

«Uztailaren\* 11, gure bigarren askatasun eguna bezala agertuko da kondairaren orrialdeetan». Honelako hitzekin aditzera eman dute Chileko egunkariek kobreaken nazionalizatzea. Kobrea da, izan ere, Chileko ekonomiaren «habe\* nagusia». Uztailaren 11n, botoen bidez, Kostitutzioa zenbait puntutan zuzenduz eta bakarjabetzaren eskubidea aldatuz, Estatuak inork ukatu ezinezko eskubidea hartu du, Herriko aberastasunak bere esku erabiltzeko. «Batasun Herrikoia» beste pauso bat aurrera egin du, bere politika «anti-inperialistan».

685.000 tonelada kobre atera zituen Chilek 1970.ean. USA, URSS eta Zambiararen ondoren, bera da munduan kobrerik gehien produzitzen duena. Eta, Zambiararen ondoren, bera da mundu guztian esportatzaile handiena. Eta, erresebak (92 milioi tonelada) kontuan harturik, bera jartzen da gorengo mailan. Kobreaken saltzeak (200 milioi dolar urtero) ematen dio Chileroi, nazioan sartzen diren dibisa guztien % 80a. Irabazte honi, «Herriaren soldata» deitu dio Allende lehendakariak.

### Ipar amerikanoen jokia

Kobreaken nazionalizatzea uztailaren 12an hasi da, eta Ipar Amerikako hiru konpainiaren kaltetan doa. Ipar aldean, Atacama izeneko basamortuan (Santiagotik 1.500 kilometrotara), hiru meatza\* kontrolatzen ditu «Anaconda Copper Corporation» delakoak: El Salvador, Exótica eta Chuquicamata. Azken hau, 2.900 metroko alturan, aire librean den meatzarik aberatsena da eta erreseba garrantzitsuenak dituena. Andes mendien erdialdera, «Kennecott Copper Corporation» delakoak, munduan den lurpeko meatzarik handiena kontzolatzen du. Eta «Cerro Corporation» delakoak, Andina izeneko meatoki zeharo aberatsa kontrolatzen du. Lehenengo bi elkarteak, mende\* honetako lehen urteetan hasi ziren lanean Chilen. Azkenak, osterak\* 1951. urtean. Oraindik aurrera, Gobernuaren organismo batek, «Codelco» (Corporación del Cobre) deritzanak, artuko du bere zuzendaritzapean kobreaken esplotazioa.

### Indemnitazioaren arazoa

Indemnitazioaren arazoa\* aipatzen denean, Ipar Amerikanoen eta Chilenoen arteko eztabaidak biziki gogortzen dira. Gobernuak proposatu du, 30 urteren barruan indemnitazioa egitea % 3 edo beheragoko tasaren interesekin, eta epaimahai bat sortzea, Gobernuaren aldetiko mahaikideak maioria direlarik.

Baina, parlamentuan asko diskutitu ondoren, proiektuko hitz guztiak kontu handiz jarri izan dira, meajabeen aldeko abokatek errekursorik egiteko motiborik ukan\* ez dezaten. Beraz, urteko interesen tasa ez da izango % 3 baino apalagoa, eta Gobernuaren aldetiko epaimahaikoak ez dira izango maioria (Gobernuaren menpean ez dauden magistratuen numeroa gehitu egin da). Azkenean, indemnitazioa, meatzak 1970.eko abenduaren 30ean zuen balorearen arauera\* egingo da, baina 1964.eko abendutik aurrera egin diren hobekuntzak kontuan hartu gabe.

### Jigantea gaixorik

«Codelco»k dioenez, «Batasun Herrikoia» 1970.eko irailaren\* 4ean garaile atera zenez geroztik, Amerikanoen konpainiek saboteatu egin dute mea\* produzioa. Ez Anaconda-k ez Kennecott-ek ez dituzte ordaindu, Chileroi tokatzen zaizkion dibidendoak, 80 milioi dolarrean heldzen direnak. «El Teniente» deitu meatzan, ordea,\* jabeen arduragabekeriagatik produzio gastuak izugarriro gehitu dira, eta Gobernuak berak sartu behar izan du eskua, legeak horretarako ematen dion deretxoaz baliatuz. Aurten, meatoki honek «deficit» ukanen\* du.

Uztailaren 11n, Allende lehendakariak, «Sofremine» frantses organizazioak Chileko Gobernuaren enkarguz egindako inkestaren\* erresultatuak azaldu zituen hitzaldi batean. Frantses teknikoek esanez, Chuquicamatako instalazioak ez daude batere egoera onean, eta 30 milioi dolar kostatuko den berriztatze baten premian daude. Baina, gaiztoago dena, Amerikanoak mea zatirik hoberekin bakarrik esplotatzen saiatu\* izan dira, eta 60 milioi tonelada hondakin utzi dute pilaturik. Eskonbro hoik garbitzeko, gastu haundiak egin beharko dira; bestela, lau edo bost urte barru ezin izango da aire librean lanik egin. «Chuquicamata gaixorik dagoen jigante handi bat da», esan zuen Allende.

### Esperantza

Gobernuak, hala eta guztiz ere, «burdin gorriaren» produzioa handitzeko uste sendoa du. «Nahiz eta gure kobreaken prezioa Londreseko merkatuan saltzen denaren parekoa ez izan, urte honetan 100 milioi dolarren irabazi garbia espero dugu», esan du M. Nolf jaunik, «Codelco»ko buruzagi ordezkoak. «Jadanik,\* ba ditugu merkatu berriak China Herrikoian, Ipar Korean, Indian, Europako bi alderdietan eta Hego Amerikan».

A. Z.

### Apaiz berriak

Hamalru arabar gaztek jaso dabe apaizgoa, Gastelzko Peralta gotzain Jaunagandik, Joan dan uztailaren\* 11n, Gastelzko «Maria Inmaculada, Madre de la Iglesia» izeneko elizan.

Jesusen Konpainiako beste hamalru gaztek ere hartu dabe apaizgoa, Jose Maria Zirarda Bilboko gotzain Jaunagandik, Gipuzkoako Lololan, Joan dan uztailaren 5ean.

#### ANAITASUNA Bizkala

Hamabosterokoa.

Zuzendaria: Anjel Zelaleta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkolaria eta banakolaria: Jardín Txikerra, 1. Bilbao (12).

Imprimatzaile: Juan José García de Mardones, Joaquín Jáuregui, Luis María Tafalla eta Gabriel García de Andoñ, AMADO Inprimaria, Bilbon.

Irarle: Gil Díez eta Manuel Barrera, RALI etxean, Bilbon.

XIX urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

## Eibar

Eibarko VI. Umeen Euskal Jalaren Inguruan sortu diren mila eztabaidak ikuslax, Arrateko Euskal Batzordekoak\* garenok, ANAI-TASUNAREN bitartez, zeintzuk izan diren gure asmoak azaldu nahi dugu. Gertatua denok dakigu, ikusi dugunez; eta garbi dago, ikusi nahi duenarentzat.

Hasi aurretik esanen dugu, aurten egin nahi izan duguna, ez zaikula besterik gabe buruan sortu. Aitzitik,\* pizka pizkaka gure begien aurrean jartzen joan den errealtate bat izan da.

Guk denok neurri batean lagundu diegu beste urteetako Euskal Jaiaren antolatzaileei: batzuek haurrak zaintzen, beste batzuek dirua batzen eta baita ere karroza ekintza aurrera eramaten.

Urteak joan eta urteak etorri, hor eta hemen jardun izan dugu; eta egun batean galdera hau egiten diogu geure buruari: Baina zer da haurren euskal jai? Erraza egiten zaiku erantzuna; baina zer egin, jai on bat lortzeko? Erraza da jakitea nola jolasten duten haurrek: beti beren tartean eta erakusten zaizkien jolasetan eta askotan jolasaren bitartez beren kezkek adieraziz.

Aurten antolatzerakoan, hemen gure kezkek. Ez genuen nahi inondikan ere, Haurren Euskal Jai hau pertsona nagusientzat bakarrik egun zoragarri bat bihurtu.

Gure eta gaurko haurren euskal jai egin behar genuen. Haurrak izan zitezela protagonistak eta jai ere halentzat zedila, urte osoan amets egin duten paregabeko alarde batekin.

Gauza ez zen erraza, eta, karroza lekuan ikastola batzuetako haurrek beren herriko edo taldeko kezkek agertu bazituzten ere, ikasi izan da, Unzaga ez dela toki egokia, halako agerpen bat egiteko. Alde horretatik hori da gure ikuspena. Zereder egin da aurten, oso gutti; baina hor dago hori! Denbora denborari, eta berak emanen dauku erantzuna. Beste alde bat zen astea osatzea, gero igandeko jaiari amaitzeko. Honetan ere, beste urte batzuetan bezala, hitzaldiak izan ditugu.

Nola eta nondik atera ditugun mamiak eta sustraiak, hitzaldiak antolatzeko? Herritik, Eibarko herritik.

Haurra genuen «nagusi», eta, hau hartuz, Eibarrera begiratu genuen, Nork daki zer den haurra eta beronen eboluzioa, sikologo, andereño, maisu eta gurasoek baino hobeto? Haur ziren gure aldeak, denon elkar hizketa baten bitartez, Eibarko guraso guztiek errealtate bat adierazteko: Gaurko haurra biharko gizona dela eta ez etxeko beste gauza polit edo galzto, poliki eta garbi jantzita kalera botatzen dena.

Euskaldun herri baten parte bezala, betebeharrak bat dugu haurrei buruz.

Nahiz eta negargarri izan, gaur Eibarrek ez du hizkuntza bat bakarrik, bi baizik, eta eskola gehienak erdarazkoak dira.

Hau ikusita, ez ote dugu euskaldun guztioz lan berezi bat, herria euskalduntzeko, erdaldun hoiek euskaldunduz eta herriko euskal errealtatean sartuz? Eta zer hobe Haurren Euskal Jai baino (galzten dutenak, haurrak berak direla ikusiaz), gurasoak esnarazteko\*?

Haurrak dira, plisu guztia erortzen\* zaiena, eta gure haurrei beste inori baino gehiago. Askotan euskara haurrei eta zakurrei hitz egiteko erabiltzen dute gurasoek, eta, horrek haurraren buruan sortzen duen ikuspenaz konturatu gabe, erdarazko eskoletara bidaltzen dituzte beren umeak. Non dago hor euskal kontzientzia? Berdin gertatzen omen\* da ikastoletan ere, guraso erdaldunek edo beren artean euskaraz egiten ez dutenek haurrak ikastoletara bidaltzen dituztenean.

Eta guk bi puntu hau ikusten genituen nabarmen aurten, gogor lan egiteko:

- Gurasoei adierazi, hizkuntzak eta eta irakaspen bideak haurrentzat duten garrantzia, eta
- Eibar bilingue hau agertu. Jakin dezagun denok, Eibar euskaldun izan dadila nahi badugu, gogor lan egin behar dugula, erdaldunak iratzartzen eta gaurko euskal errealtatean sartzen.

Aste batek zazpi egun ditu; eta euskal aste honetan azaldu nahi izan dugun ekintzak, milaka egunen lana eskatzen du. Eibarren ba ote dago indarririk, denok egunen batean euskaldunak (euskaradunak) izatera hel galtezen? Guk, nahi dugu eta uste dugu baietz. Ekin dezagun lanean.

S.C.R.A.

## Galdakano

### Zamakoako auzuneko jaiak

Zamakoako\* auzunea da, hain sakabanaturik dogun Galdakano gure herriaren bihotza. Haren inguruan mugitzen da herriko jendea, gorpila ardatzaren inguruan bezala. Eta Zamakoako honetantxe egin berri izan dira jaiak. Uztailaren\* 10ean eta 11n izan da hemen alaitasuna, zarata, eguzki erre, txaplio\* eta bolanderak,\* mutilen jo eta su egingura eta nagusien kuriosidadetxoak.

Jaiak antolatu ahal izateko, auzotarren diru laguntza izaten da, batez ere herriko dendariena. Beñi gertatu ohi dan bezala, oraingo honetan ere, batzuk eskuzabalak izan dira, beste batzuk eskulaburrik; batzuk betiko antzera portatu dira, eta beste batzuek ez dabe jaramonik\* ere egin.

Antolatzaileen taldea auzotar gazte batzuek osoturik egoen. Honeen lepo gain jausi da, jaiak atontzeko\* lanaren zama:\* ikurrin-txoen, argien eta jazarlekuen arazoa,\* sariketen atontzea, diru batzea, eta abar.

Uztailaren 10ean, larunbatez,\* hasi ziren jaiak. Arratsaldeko 6etan, umeen jolasak. Umeak bai poztu zirela! Fantasia eta ametsez beteriko mundu batean murgildurik egoen. Euren mundu zoragarria. Jarraian, eta goizaldeko ordu bata arte, balteoa. Ez zan jendetza haundirik. Jendeak ez dau parte hartzerik nahi, dana inork eginda hartu nahi dau.

Igandean izan zan jaien amaiera. Goizetik, pilpileko makailau sari-keta. Arratsaldean, auzoko jubilatuen arteko museko sariketa. Antolatzaileek ari bat eskaini eben guztientzat. Iluntzean, balteoa eta jaiari agurra: agurra gozoki saltzaileei, ikurrin txoei, argiei...

### Berezitasunak

Jai honeen punturik behinena\* zera da: ez dago jai horreek egiteko motibo berezirik. Hobeto esan, ba dago, baina ez da beste tokietan bezalako. Ez dira inolako Santuren baten ohorez egiten. Ez dabe ezelako gertakari ezagunik ospatzen. Besterik gabe, uztailaren bigarren larunbat\* eta igandean egiten dira, eta kitol Lehen aldiz, orain dala 19 urte egin ziren. Harrezkero, eten barik egin izan dira, auzotarren gogo eta ahaleginez. Beraz, auzotarren guraria da, jai honeek egiteko motibo bakarra.

Horra hor Zamakoako jaien historia. Beharbada, jai honeek ez leuke zeresanik ez inolako arrazoirik izango, hotz hotzean aztertu ko\* balira. Baina hortxe dagoz, nahiz eta azken urteotan gero eta beherago, gero eta hotzago joan, hiltzera joango balira legez.\* Jai honeetan, jendea azakatu\* egiten da, lasaitu, deskargatu. Beharbada, ez da hori jolas- eta azakaldirako erarik aukerakoena eta egokiena izango. Baina, eta besterik ezagutzen ez bada, besterik aukeratu ezin bada?

Zamakoako jaiak, hurrengo urterarte!

Joseba L.



## Atxoarena jauna, Lapurdiko alkateen buru

Atxoarena jauna, Bidarteko alkate edo auzapeza, hautatua izan da Lapurdiko Alkateen Elkarteko buruzagi.

## Andereñoen Iruineko ikastaldia

Aurrez ere gorabehera frango ibill ondoan eta udako ikastaldia hastera zihoa garaian dute debekua hartu ikastoletako irakasleek. Guztiaren eta guztien berri zehatz-mehatz eman ahal baledi, agertuko luke azpikeriak hatzapar itsurik.

Gainera, ez dezagun pentsa, jokia beti beste agintarien gorabehera denik; elizgizonena ere ba da, bederen\* kasu honetan. Ez dakigu zergatik den, edo zer arrazoin ezkutuko dituzten, gisa horretan eskuak zikitzeak.

Eskerrak, alabaina,\* Iruinaldean nola Seminarioko buruzagiek hala Gotzainak garbi jokatu dutenik!

## Urretxuko pasiotarrak

Ikastolari «linea» berri bat ezarri behar ditela eta atera zalzki-gu Urretxuko pasiotarrak. Urretxuan, dirudenez, guztien beharrek zegoen ikastolaren martxa.

Erru\* guztiaren zama,\* ordea, andereñoen gain jaurtik nahi izatea, «zu pekatariaren» legea da; eta, dirudenez, beti gertatzen den bezala, denak dira errudun: guraso batzordea\* eta fraileak ere bai.

Baina hoik horrela, makurraren makurra zera da: herriaren ikastola bat Elizaren kolejio bihurtzea. Ba du oraino Elizak Kontzilioaren arabera\* bere irudia berritzatzen lanik asko!

## San Inazioaren bederatziruena

Aurten, lehengo urteetan baino handiroago ospatzeko asmotan dabilta Loiolan Alta San Inazioaren bederatziruena.

Arratsaldeko zortziretan meza berezi bat egingo dela Basillikan adierazi dute Jesuitek. Horretarako, erromes\* gisa edo jendea bil\* dadin, eskualde\* bakoltzarentzat seinalaturik dadukate egun bat.

Meza ondoan, «Hots eta Argi» delako ikuskizuna emango da. Jendea osatzen bada, autobusak ere jarriko direla agindu dute.

Ez da dudarik, bilduko dela jende multzo bat, denetariko dago eta gaur egun. Harrigarriena, nola mugierazi litekeen oraino gisa horretako folklorea. Herri folkloreak ba du, noski,\* bere lekua; baina, besteren pentsamoldeak errespetuz harturik ere, noiz arte jarraituko ote erlijiozko folklore hauek?

## Erabaki guztiz harrigarria

Parisetik idazten dauku Jean Mirande euskal idazle ospetsuak, jarraiko modu honetan ANAITASUNARI uko egiten diola esanez:

7, rue Jules Dumilén  
Paris XX  
le 9 juillet 1971

Messieurs et chers compatriotes,  
Je vous ai écrit il y a quelques jours, mais en me trompant d'adresse. Bien que ma première lettre soit destinée, je pense, à vous parvenir un jour, je préfère m'adresser à nouveau à vous, en répétant d'ailleurs à peu près les mêmes termes. Je reçois depuis quelques mois ANAITASUNA, revue à laquelle je ne me suis jamais abonné et que je jette sans la lire, étant fasciste (bien que basque) et détestant le christianisme, ou du moins la démocratie dite chrétienne, en fait judaïque. Je vous prie de donner suite à ma demande.

Comme je vous le disais déjà, excusez de vous écrire en français; vous trouverez, je pense, aisément un interprète. Et par ma part l'euskara, que je continue de pratiquer avec ma famille souletine, m'est devenu étranger, comme langue politique et de culture.

Veuillez croire à mes sentiments dévoués.

J. Mirande

## Beasaingo ikastola

Zenbat ezinegon dabilen bazterretan! Esan daukutenez, Goierriko apalzak euli ziltadaren batek ukiturik edo dabilta, Hona Beasaingo kasua exenpluzat.

Herri honetan, beste askotan bezalaxe, ikastola parroklaren besean aurkitzen denez, parrokoak beste apaiz bat izendatu du golzetik gauera pedagogi zuzendaritzarako, eta andereñoak onartu ala ez beronek egiteko eskubidearekin.

Esan gabe doa, jendea nola aztoratu\* den, eta bereziki ikastolaren batzorde arduraduna. Honek, hala ere, jotzekoak jo ondoan, lortu\* ahal izan du, atzera eraglitea. Horrela, bada, orain legearen babesa eta ikastolaren nortasuna bi gauza oso desberdinak direla ikus dezake edonork; eta aldi berean azaldu da ere, pedagogiaren zuzendaritza eta erlijio pedagogia gauza bera ez direla.

Funtsean\*, parrokoarena baino goragoko «norbalten» jokia are zikinagoa izan omen\* da.

# Ez zaite jausi paper honeen murrontzapean


Zenbat aldiz arduratu izan zaitu errezibo batek, naiz etxean ordaintzeko, naiz, okerrago dana, etxetik kanpo? Atsegingarria da, oster, bateron bat, gure orde, paper horrekin arduratzea. Horretara, ez dugu ernegatu behar ez bentanilla-txoaren aurrean zain ta zain luzaro egon beharrez, ez eta, gerta datekeana, diru-kontaktak egiterakoan erratzeaz.

Zure Diruak Korriduan edukitzea da nahiko: honetara, dohan, zure erreziboekin beste batzuek arduratzen dira. Banco de Bilbao etxea arduratuko da zure argiaren, uraren, gazaren, telefonoaren, etabarren erreziboak ordaintzeko. Baita ere klub, alkarte, kontribuzio eta seguroen ordaintak garbitzeko.

Eta beti izango duzu agiri bat, zenbat, noiz eta nori ordaindu izan jakiteko.

Banco de España 7294 numeroarekin baimendua

BANCO DE BILBAO



# Atsegin printzipioa eta errealitate

## Ezarritako bideak

Emakumeak ba du gizartean funtzio bereizi bat: gizarte horren antolakera bereiziaz eskatzen diona. Arau\* batzuen arabera\* jokatzen dugu; gure jokamoduak\* eta elkarren arteko erlazioak lege hoi arabarakoak dira. Lege hoi, gure gizartean, ez dira gizon-emakumeen neurriara eginak. Gizon-emakumeok erlazio harl interesatuetan sartuta gaude, eta erlazio holetan agintzen dutenak ez dira gizon-emakumeak; hauek, obeditu eta sistemak ezarritako hildotatik\* ibill besterik ez dute egiten. Honela saltzen dira gizon, emakume eta herriak sistemaren interesetara. Sistemak sari eta konpentsazio batzuk ematen ditu ordainez, engainagarri eta lokar-arazle bezala.

Haur jalo berrira harl holetan integratu gabe dago oralndik. Status ezarriaren estrukturazioa ez du oralndik bere haragi bihurtu; baina horretara daramate hezitzaileek,\* gurasoengandik —eta gurasoetan amagandik— hasita. Heziketa,\* haurrak zituen posibilitateen prostituzioa izanen da. Haurra, gero eta gehiago, Inguruko erlazio moldeetan integratzen eta erlazio hoi arabera «nortasuna» eglaturatzen\* joanen da. Integrazio eta eglaturazio hau, mutilak aitaren irudia eta neskatillak amarena bereganatzean burutzen dira. Status ezarriaren sikologoek integrazio hau beharrezko jotzen\* dute, eta neurosen sustralan dauden Ediporen eta Elektraren konplejoak nola galdi\* erakusten dute sikiatra burgesek.

## Aitaren jokia

Gure sistemako familiaren barnean, aita da sistema horren errepresentatzaile. Aitarekin eta aitaren idealarekin kidetzea,\* sistemaren erlazio interesatuetan integratzea bihurtzen da. Ama, gure familian, aitaren menpean dago: atseginaren printzipioa errealitatearen printzipioaren pean. Amarekin eta amaren idealarekin kidetzea ere, aitaren nagusigoa onartzea denez, erlazio harl interesatuetan integratzea da.

Guztiaren gailatik sistemaren interesak daude, eta aita da interes hoi ordezkarl. Ama bera ere, sistemaren morroi-neskame izanen diren seme-alabak «heztzen» dituen helnean,\* aitaren konplize da. Gizonezkoaren atsegin Iturri eta objeto erotiko den helnean, atseginaren printzipioa errepresentatzen du emakumeak. Baina, gure gizartean, errealitate printzipioaren eta atsegin printzipioaren arteko disoziazio bat dago. Errealitatearen printzipioa, hots,\* gure gizarte sistemako erlazio fetitxizatuak, Inposatuak zalzkigu: erlazio holetan allenatzen garen helnean, sistemari eusten diogu. Atseginaren printzipioa, berriz, errealitate printzipioaren aurkatz aurka ez dagoenean, harl sometitua dago: ama aitari sometitua dago.

Senarra lanetik nekatuta etxera datorrenerako, gertututa egon behar du emazteak. Hurrengo egunean berriro ere lanari ekiteko

—lan aspergarri bati ekiteko— berrituta lrtzen\* behar du gizonak. Gaur egun, langilearentzat, indar-berritze aldi besterik ez dira xolarteak;\* makinak ezarritako ritmoan hamar orduko lana egiten duen langileak, «denbora librean» ezer egiteko adore eta kemenik ez du. Emaztearen —edo beste emakume baten— esku egonen da, gizon horl hurrengo egunean berriro ere lantegira Irripartsu bialtzea.

## Emakumearen eta emagalduren jokia

Emakumea, beraz, gizonezkoaren objeto erotiko eta plazergile dugu; baina gizonezkoaren aglntea ez du inoiz zalantzan\* jarri behar. Atsegina bai, baina ez «atsegina atseginagatik», sistemaren iraupena garantizatuko duten ondorengoan reproduktioarako baizik. Sistemaren barneko beste lan guztiak bezala, reproduktio lana ere maldizio bat da emakumearentzat; sistemarentzat robot-ak egitea ezln dalteke besterik izan. Hau honela izanik, «atsegina atseginagatik» oihukatzea\* sistemaren hondamendia litzateke. Komeniko da, atseginaren eta errealitate printzipioaren disoziazioa eta atseginaren errealitate printzipioarenganako menpetasuna gordetzea. Disoziazio honen eta gure gizarteko beste zenbait\* kontradizioaren agerpen bezala, hor ditugu «emagalduek».

Farlseukerla nabarmenez gizarretik at\* utzita baldin badaude ere, eginkizunik garrantzitsuenetako bat jokatzen dute «emagalduek» gizartean. Erdeinatzen\* dituzten beroiek ere, gizartearen osasunerako premlazio gaitz bat bezala onartzen dituzte. «Ken Itzazue emagalduek, eta lizunkeriaz nahaspilatuko duzue gizartea», dio San Agustinek. «Emakume publikoak gizarretik kentzen badituzue, lizunkeriaz desordenu mota guztiekin nahaspilatuko du gizartea. Zikinuzulo\* batek palazio batean egiten duena, horixe egiten dute hirian\* prostitutek: ken zikinuzuloa, eta palazioa leku zikin eta kirastu bihurtuko da», dio Santo Tomasek. Monogamiaren aldarean egin beharreko diren ema-eskaintzak dira emagalduek», zioen Schopenhauer-ek.

## Prostituzioaren zera

Esan dugu, atsegin printzipioa errealitate ezarriaren printzipioaren pean dagoela, eta gratifikazio bezala ematen den zerbait dela. Hau garbi Ikusten dugu prostituzioaren kasuan ere. (Hemen «prostituzio» hitza zentzu hertsian\* hartzen dugu; zentzu zabala emanez kero, gaurko gizon-emakumeen arteko erlazio guztiak bildu\* beharko ginituzke izen horren barnean.)

Prostituzioa, glzonek goza dezaten muntatua dago; lan gabezia eta miserla nagusi diren gizarte batean, edozein profesiorako dago jendea. 1857.ean Parent Duchâtelet-ek zioen bezala, «prostituzioaren kausa guztien artean, lan gabezia eta lansari\* tipien noraezeko\*



P E N T S U A K

Sarb-en ardurapean eratuak

VALLE DE ATXONDO (Bizkaia) - Tel. 11

Zure etxeko behi, txahal, egazti,  
ardi, koneju, nahiz txerri,  
onuragarri izan ditzazun,  
emaiezue Ongarri.

# ezarriaren printzipioa

ondorio den miseria baino kausa aktiboagorik ez dako». Prostituzioa, gizarte patriarkalaren asmaketa bat dugu. Prostituzioa, gizonen zentzuzkoen atsegingarri izanik, ez da praktikan inoiz gonbatitua izan. Aldaketa juridiko batzuk egun dira historian zehar, Karlomagnoaren garaian bezala; baina, logikoa den bezala, «emagalduek» zigortzeko izan dira denak. Zigortuenak, inoren babesik gabe, beren buruz ziharduten prostitutak ziren. Inkisizioak ere haien etxerik ez zuen atakatu, kasu berezietan ezik; baina, kontrol guztitik ihesi lan egiten zuten «emagalduek» markatu, zigortu, uretara bota eta sorginak bezala sutan erretzen zituen: edozer gauza, gizonen zentzuzkoen gaitortasunaren erakunde armonikoa kolokan ikusi baino lehen. Honela, prostituzioaren hedapenarekin, emakumearen zapalkuntza burutua gelditzen da; Lidia Falcón-ek prostituzioari buruz dioen bezala, imajina zitekeen perfekzio handienera eramana izan da sexuaren zapalkuntza.

Ekonomi aldetik, «emagalduek» eta emakume ezkonduaren situazioa paretzukoa da. Prostituzio bidez saltzen diren eta ezkontza bidez saltzen diren arteko ezberdintasun bakarra itunaren prezio eta iraupena dela dio Marrok. Etxeko andrerik leialenak eta emagaldurik galduek maitagarri agertu behar dute gizonen zentzuzkoaren begietara; horretan dago emakume hoi, batez ere «emagalduek», etorkizuna. Greziako hetalren, Erdi Haroko kortesenen, Japonen gheishen, gaurko «emagalduek» arruntak eta zinek aktriz gehienak etorkizuna gizonen zentzuzkoaren begietara atsegingarri izatean datza, dela gorpuz alderdian bakarrik, dela zentzu zabalagoan.

Emakume ezkonduak ere, senarrari «etsiko» badio, beharrezko du maitagarri agertzea; feminidatearen idealari lotu behar zaio, ideal horren aurkako bekaturik astunenak feministen «marimutilkerria», «beren buruaren jabe izan nahia», «familia patriarkalaren uzta» eta ondorenak onartu nahi eza, «fisikoari kontu ez hartzea» eta abar direlarik.

Sistemaren funtzioan bizi den gizonen zentzuzkoaren funtzioan bizi dira emakumeak. Gizonen zentzuzkoaren sistemaren morroi izatea onartzen duen geldotasun berberarekin onartzen du emakumeak gizonen zentzuzkoaren neskame izatea. Horregatik, gizonen zentzuzkoaren neskame izatea onartuz gero —egun eskalintzen den emakumearen irudi ofiziala onartuz gero— edo onartzearekin batera, on izanen da, senartzat hartu behar den gizon hori boteretsu eta prestijiodun izatea. Beti ere nahiago da nagusien neskame izan, morroien neskame izan baino.

Emakume langilea, lantegian ezezik, etxean ere zapalduta dago. Ba dakigu, lantegian zapalduta dagoena —dela gizonen zentzuzko, dela emakumezkoa— etxean ere zapalduta dagoela, xolartea lan orduen jarraipen bat baita. Lantegian morroi edo neskame dena, lantegitik at ere hala izanen da; bizi ditugun erlatzioen arabera definitzen baita «gure nortasuna»; nortasun bikoliztua, berriz, situazio eta pertsona ezberdinen aurrean jokabide ezberdinak hartzetik dator. Baina, lehengoan genioen bezala, emakumeak modu berezi batetan bizi du zapalkuntza hori, bere funtzio bereziaren betebeharrak ematen dion moduan. Lantegian, hurrengo batean ikusiko dugun bezala, gizonen zentzuzkoari baino gutiago ordaintzen zaio; eta, etxeratzean,

haren esku daude etxeko lanak: urneak zaindu, hezi, etxea xukundu, eta abar. Honela, gizonen zentzuzko baino gutiago ordainduta, hark baino lan ordu gehiago sartzen ditu.


Emagalduek arruntari buruz ere, sexual prostituzioa —sexual prostituzioa delako diogu, nahiz eta jakin sexualitatea ez dela hari sozio-ekonomikotik at dagoen ezer substantiborik— modu berezi batean bizi duela esan behar dugu, «txuloaren», «makroaren» edo beste nagusien baten menpetasunean bizitzeak ezartzen dion modu berezian. Menpetasun horretara makurtzen ez badira, zailtasun handiak aurkituko dituzte, aurrera ateratzeko.

Emakume burges eta hetairel buruz, gizon boteretsu batekin elkartzean, ekonomi «askatasun» bat lortu badute ere, «askatasun» hori negatiboa da. Ez dute gizartearen gobernuan esku hartuko; aitzitik, gobernari borondatea egiten saiatuko dira. Izan dira,

historian zehar, goi mallara igo diren emakumeak; baina, mundua gizonen zentzuzkoek gobernatu eta gobernatzen dutela dioen erregela konfirmatzen duten salbuespen batzuk bakarrik. Eta igo diren lekura igo badira, berriz, gauzak zeuden bezala utsiak izan da, emakumearen egoera jenerala onartuz; langileriatik irteerako bat, langileria gatazka ahaztuta, direkzioan integra daitekeen bezala.

JON ETA KLAUDIO

daramate, deroe  
daude, dagoz  
dezaten, dalen  
dio, deutso  
diogu, deutsagu  
gaude, gagoz  
genioen, esaten genoen  
zaizkigu, jakuz  
zaio, jako  
zioen, inoan, esaten zuen  
zitekeen, eiteken



## ANAITASUNA

Bidatu eidaze "Anaitasuna" kontrarenbolsoz.

Izen-abizenak ... ..

Bizitokia ... ..

Herria ... .. Probintzia ... ..

Urteko arpidetza eskuz nahiz jiroz . . 150 pezeta  
Kontrarenbolsoz . . 160 »

# “ASABA ZAHARREN

## POEMATIS PERSONAE

NI	Filipe, Izkribu honen egilea, altaren bigarren semea, seme espirituala, Eladioren anaia mesprezatua.
AITA	Lizardi.
AMONA	Euskara.
MUTIKOA	Eladio, poema hau interpretatu behar izan zuena, altaren lehen semea, ohorea bai eta nekea ez hartu nahi duena.
BARATZEA	Euskal Herria.

Ni xipiena naiz, aita hil ondoren jaioa. Urrikarri emazurtz\* hau, ez naiz Jaungoia, ez naiz primua,\* eta horregatik gure **asaba zaharren baratzaren** gainean ez omen\* dut eskubiderik; haren heretajea,\* bort\* sortu izan baintz bezala ukatu zait. Oihal finezko bandatoz\* ez ninduten troxatu,\* eta urrezko sehaskaren ordetan\* manjadera\* pobrean eratzan\* ninduten.

Beraz, aita, gure lur haren **atarian**, mendirik mendi lau urte-giroetan\* zeihar\* ibili ondoren, atsedean hartzera gelditu zenean, ez nintzen ni presente egon. Ene belarriok ez zituzten haren ele\* ozenak\* entzun, **asaba zaharren baratza** otoitzez bezala salutatzan zenean; **huntzadun\* ormez** eta paret aihentsuez\* eraikitako **hesiak** inguratutik eta xedaturik\* zegoela zekusanean, ez nituen haren begitarte dirdiranteak kariziatu; egunez **eguzkiak** eta gauzez ilargiak eta zeru goibelaren azpian haize bero, epel eta hotzak **maite** ukana\* izan zela ohartu zenean, ez nuen haren gizontasunaren usain maitakorrik susmatu. **Hotzaldi zoro batetik** bertara **itzuli** zenean, baratzeari bertako **atea joka zegokionean**, ni ausentziarik hutsenean nengoen, oraindik esistentziarik ez ukateko\* ausentzia nabarmenean nengoen.

Ez dut hau ongi konprenitzen, nola oroit\* ahal ditzakedan hain zehaztasun neurtuarekin inoiz ene belarrietara heldu ez diren hitzak, inoiz ene aurrean esan ez diren eleak\* nola orain ene memoria gogoratzailaren amiltegi\* sakon eta harleze\* meharretan\* durundio ozenetan oihartzunztatzen\* zaizkidan honen preseski,\* honen berdinzki: «**Joka nagokik atea, ate gorri zurezkoa,\* euri zaharrek usteldua, marraskiloen\* bide bihurriek apaindua**».

Ai ene, ene aitaren boz finkoa, firmoa, kapitainaren ezpata bezain zorrotza, ola\* gizonaren mailu pisua\* bezain bortitza horrela mintzatu zen, jainkotegitik\* merkataria zihor kolpeka eta uhe\* kolpeka jaurtikitzen dituen profetaren adorearekin...! Baina, bide batez, otzana\* zen, apal, laztangarri, triste. Malenkonia zahar batez horniturik zetorkidan neure gordaleku\* ezteusera\*:

**Nuen amona zahar bat,  
zazpi begiko baratzain;  
deihadarkari yayoa,\*  
marrubi\*-lapur banindakusan...  
Bizi ote dut gaisoa?**

Orkume\* bat banitz bezala nindoakion atzera, orpoak humilki eta eztiki limikatzen\* nizkiola; edo, propioago, zakur gidari bat balitz bezala zihoakidan aurrera, niri, begirik eta izaerarik gabeko itsu soraio\* honi.

Berak baratze sarrera hartu zuen. Bertara **sartu** ginen, **eta...** hara! geure begi nekatuoz\* ikusi genituen **zuhaitz jantziak**, arbola sendoak, zuhamu\* ederrak, Euskal Herrian erlijio atzerritarrik sartu baino lehenagokotik geure lur maitea apaindu, laudatu, hornitu eta ohoratu duten haritzak, lizarrak, arteak, fagoak... Baina **urrats bat** aurrerago **egin** genuen, eta han dena zen **adar huts** eta abarraska eihar.\* Adar haik,\* **oroitzapen** ahaztuak zekazkiten **xoriez zeuden beterik**; aita eta biok **ikusi** gintuzten, ni ere ikusi ninduten; **bat bae**an, gutien uste eta espero nuenean, **hegoei eragin zieten**. Agur, agur, adio, usa-kolunba\* ume-ar,\* hik dakianari ene diosala\* eramok!

Sarrera hargatik aitak geroxeago esandako hitzak hauk\* ziren:

**Nigana datoz, nahaska,  
adiskide min maiteak!  
Barru-muineko gauean,  
su itzalia gar gorri bizi  
dabil bihurtu nahian.**

Kasik negarrez zegoen, zotinez eta heiagoraka\*:

**Belar gaiztoak jan ditu  
ene bide ezkutua.  
Ale bakanak dakazki  
bide gaineko mahatsak, eta  
ez dago ezein\* eguzki.**

Ondikoz\* eta tristuraz erostaka\* zebilan:

**Urte joanen zitala!  
Zaharkitu duzuen,  
nola berrizta liteke?  
Hain zabal nuen baratze hura,  
honen hertsia,\* honen gabe!**

Eta aurrera diraut,\* aurrera nakio, neure aita espiritua-laren, neure aita poetikoaren ondikoak eta heiagora eldar-niatuak\* entzuteari eta konprenitzeari narraika, arrainak harrapatzeko sareak utz ditzadan, berari jarraiki nakion, lege berri batean iraun dezadan eta fede bortitzago bati ekin nakion diostan profeta jaingo-seme bat balitz bezala, honela esplikatzan dautalarik lehena zer zen, zer izan zen, nola **baratz-erdian aurkitu** zuen **amona**, nola **alderoka**,\* zutik jaiki ezin zitekeela **zetorkion**, nola **zetorkion begi galduak noranahi** galtzen zitzaizkiola, nola **heriotzeak zekarren besa-ondotik laguntzen** ziola, bera **bero buruz**



# BARATZA“ — LIZARDI (I)

eta bere indar apurrez ez baitzen gai aurrera urrats bat ere, pauso simple bat ere, atzera pauso bat ere, urrats simple bat ere egiteko ez gai eta ez kapaz.

Eta dio:

**Amona, zatozkit, otoit!**  
**Iloba laztan ezazu,**  
**deit\* iezadazu «iloba».**  
**Hitz hori ontzen zait zahartzeaz,**  
**ardo zumela\* bezala.**

Jira eta biraka hasi zen, dei eta dei egiten ziola, ez dakit nori, aireari edo haizeari, lurrari edo leihorriari, urari, euriari edo itsasorik gabeko ekaitzari; aitari del egiten ziola, amari dei egiten ziola, hoik\* guztiok baitzitzazkion lurrak (edo aireak edo itsasoak) irentsi\* zizkion bere haurtzaroko lagunak... Zaharraren indarrez bir-umetu, berriz haurtu eta hartzara\* infantetu denez gero, bere menpeko darabila lehengo zirrada\* bederak\*.

Urrikarri urrikarri sentitzen dut hura neure bihotzaren barrenean. Lausorik\* eta ez besterik ez du berak, giza-leluak\* dakarkeen\* argi bizia ilundurik datozkidan itsu-begietan... Hala konturatzen naiz diotsala ene aitaren adimendu poetikoak bere buruari. Non\* nahi den barrentzen ari da iragan\* aldiaren zerrena\* eta sitsa\*.

Eta zuka, hitanorik\* gabeko zuka mordoilo batez, zoroki mintzatu zitzaion, gatzelu gaitz bat errendatu ondoren printzesa kastetate-gerrikoko bat bortxatuzera doan zaldun (zaldi-dun, zela\*-dun) arrotza bailitzen.

Laztan egiten du haren maxela\* zimeletan, urte betea konplututako sagar zimel haietan. Bera (eta bera amona zen, mundu bakan hartan hain berber\* eta bakoitz\*), harrituta, harri bihurtuta, bihotza harri bezalakotuta, begi eta begi eta begira zegokion. Gero, geldiro, «Nor zaitut?» diotsa. Berriz etortzen zaizkit gogora aitaren pentsamenduaren uhinak\*: «Euskaraz hark niri galdegina, gogoan besterik ez dut!»

Bere begien suz sutu nahiz hari bereak, ba diotsa: «Iloba nauzu, zaharrena... Zure marrubi\* gorriak inoiz ohosten\* (hura izan zen lapurreta, ohorgoa\* makala!) ohi nituena...»

Oroit\* ote da? Begietan, bai zalantza\* egiten dut, duda handia eta izugarria egiten dut, ximist-ikararik iragan\* zitzaiolako duda eta zalantza beldurgarria. Eta burua igurtzi zion astiro, esanez: «Zu?... Zu?... Gaisoa!»

**Hasi zen biraka berriz,**  
**hil zaharrei dei-negarrez,**  
**heriotzearen egarri...**  
**Bizitzearen hondar aleak**  
**larrainean\* eultzen\* ari!**

Ai, bai! Orduko oraina\*! Oraindik ez zen zerua dinamitaz lehertu; oraindik euskaldunak ez ziren tradituak\* izan beraien elijio-kideez... (Ai, hura baitzen atzipamendu\* eta desenganio, batera biak, sakrifikadore\* subira-noak ez zituenean errezibitu nahi ukan Galileatik igorritako antziano eta printzipal fariseo debotak!).

Ekaitzarekin batean (eta Jainkoak ez zion gure aita poetikoari ekaitza ezagutzeko atsekaberik ez oinazetik eman; dohatsua hura!), beste poeta (kontuz hemen! irakurleak irakur beza O eta E, eta ez U) nagusiago (!) batek (hobeki joan zitzaion zeru-azpiko denboran) kaletik iturrinora zebilan eztebe proto-martiri batek honela kantatzen zuen:

«Y el Verbo se hizo luz, y Adolfo Hitler...»  
Horregatik,

**Hara, bidean, baldarño,**  
**muttiko bat guregana:**  
**Hark bir-iloba,\* nik seme.**

Lehen aipatutako ene anaia nagusia zen, Eladio, georago ni, Filipe hau, honen higuin, honen gorroto uka-

nen\* ninduena. (Beste egun batean esplikatu dut bi anaiok asaba zaharren baratzean zertan iharduki\* genuen, hark loregintzan, nik laboragintzan, eta zein akabaera zitala eduki zuen gure jardin-guduak; bai, kantuzko bertso lanetan azalduko dut!).

Ikusi zuen amonak, bertan gelditu zen, eta hura zen haren eztizko irribarre gozoa!

Hara zer dakusadan, bai, nola laztan egiten duen, bere hezur hauskorak pozak zorutzen dizkiolarik, eta diotsan:

**Hi haut,**  
**orain hakusat**  
**ongi;**  
**hi haut,**  
**bai,**  
**holako!**

(Ez zion bere grazia\* naturalaz aipatu, orain nik ahaztu nahi dudana —Eladio, nik jarri diodan etiketa bat da, Filiperena ere intentzio gaiztoko beste etiketa bat den bezala—, ezpada\* aitaren izen sakratuaz...).

Eta izen hartaz kontsokratu olioaz igurtzi zuen, burutik oinetaragino, erregetan, profetatan eta apaizetan.

Guztion lehen denbora desiratua zegoen ele gozoka orduko orain\* arrosa-kolorekoaz. Bitzuok (amona zaharrek eta haur gazteak) mintzo ber-bakoitzaz,\* hizkuntza bereaz zihardukaten. Aitaren asaben lokarri zaharra (Goikojaun jaunari eskerrak eman zizkion) ez zen eten, ez ebaki, ez apurtu!

Eta orduan gure aitak etorkizunaren bisio bat eduki zuen, aurrera-ikuste bat. Gure aita Xabier, zenbait\* molde eta taiuz Jaunaren graziazko urte honetako hainbeste seme barreiatu\* edo xedaturen\* guraso propioa haizena, ametsik ederrenetako zeruan haizena, izena benedikatu dauaguna,\* asaba zaharren baratzerako gutiziatu\* huen miraria orain gorpuztu duk. Bai, nola eduki huen etorkizunaren admonizio hura? Nola jakin huen, orduan (orain) eguzkiz jantziko zela asaba zaharren baratzea? Orduan (orain) zuhaitzak frutuz betekoz zirela? Orduan (orain) baratza leheneratuko zela, mundu guztira bere mugak berriro zabalduz? (Zeren,\* hemen gaudela, hemen sufritzen dugula, poloetako jelak\* eta desertuetako hareak eta itsasoetako uharteak eta orain lau mila eta hiru mila eta bi mila urte landatutako harriak ere enteratu baitira). Bai, jauna, gure jaun eternal eta oroitzapen-guztietakoa,\* nola jakin huen, lehen inoiz bertan ikusi gabeko zuhaitz berri bat egonen zela, ekaitz eta tormenta eta baje\* guztien erdian, burruka gorrera doazen soldatu-kide guztien buru...? Nola jakin huen, haren gerizak herri-baratzak inmortal eginen zituela?

¡Oh, Tabor mío; oh, transfiguración del viejo huerto!  
¡Hazte carne y realidad! ¡Que la esencia del pasado  
mude el huerto viejo en huerto nuevo!

Eta hara, Tabor mendia egia eta mamia da!

Eta hara, baratze zaharra baratze berri da!

GABRIEL ARESTI

banindakusan, ikusten baninduan  
beza, bei  
dakazki, dakaz, ekartzen ditu  
dakusat, dakust, ikusten dut  
darabila, darabil  
daut, deust, dit  
dezadan, daldan  
diost, dinost, esaten daut  
diot, deustat  
diotsa, dinotso, esaten dio  
ditzadan, daidazan  
ditzaket, daikedaz  
dizkio, deutsoz  
eramok, (eraman lezok),  
eroan eiok  
ezazu, eizu  
genituen, genduzan  
gintuzten, ginduezan

hakusat, hakust, ikusten haut  
huen, heuan  
lezadazu, eidazu  
nakio, ekiten natzalo (natxako)  
narraika, jarraitzen natzalo  
nizkion, neutsazan  
zait, jat  
zalzkít, jatuz  
zebilan, ebilen  
zekazkiten, ekartzen zituzten  
zekusan, ikusten zuen  
zeuden, egozen  
zieten, eutseen  
zihardukaten, ziharduten  
zlon, eutson  
zitekeen, eiteken  
zitazkion, jakozen  
zizkion, eutsozen

# HAU DUK HUMOREA!

# Euskal enciklopedia

## Giroa

Hain eguraldi euritsuak edukitzea, gero eta ugariago diren kitarra jotzaileetan dateke.\*

## Odontologoak

Odontologoek ez dute behar propagandarik: hagnetako mina da onena.

## Eskuindarrak

Eskuindarrak, izenak dioenez, indarra beren eskuan dadukatenak dira.

## Atsotitz\* modernizatua

Euskaldun, erdaldun?

## Gazteen ilea

Gaurko gazteek ile\* luzea erabiltzen dute. Inork ilerik hartzea ez zalelako gustatzen ote?

## Garbiketa

Gizon serio eta prestua zen. «Love story» Irakurri eta gero, bere gafak\* paper higienkoarekin garbitu zituzten.

## Idazlea

Zergatik idazten du idazleak?  
Bere barnean, idazteko bultzada bat sentitzen duelako, hain zu-  
zen. Idazle euskaldunak, behinik behin.  
Besteek, jateko ere idazten dute.

ANTTON

Orain asko ez dela, Imanol Laspiurrek ZERUKO ARGIAN idatzitako artikulu bat irakurri dugu, «Euskal Enziklopedia»z hitz egiten duena hain zuzen.

Ene aburuz,\* gure euskalduntasunaren berpizte, proletarizatze eta hedatze\* honetan, Laspiurrek egin daukun deia, bai eta jarri daukun adibidea ere, ondo baino hobeto datorkigu, nahiz eta esenpluz jarri duen «Gran Enciclopedia Catalana» delako hori biezin ekonomiko bategatik bukatzeke\* geratu\* den. Eta hau, nahi eta nahi ez, oso kontuan hartzekoa dugu, zeren\* errealitatea ahantz\* ezin dezakegunetariko gauza bat baitzaiku. Beraz, katalanek, 6 milioi bat direrarik, osorik ezin argitaratu izan badute, nola demontres egin genezake guk geurea, milioi erdi baino ez garelarik?

Gaurko eta hemengo Euskal Herrian geure bizi eusten dlegula eta haren kontradizio ekonomiko eta politikoen barnean etorkizunerrantz abiatuak gaudela ahantziz\* gero, denok dakigu nora jotzen dugun, ez dagoen zeru batetara, alegia.\* Jakina, errealitate hau besterik gabe onartzea ez dirudi joerarik zuzenena, kasu: «Gran Enciclopedia Vasca», «Añamendi» eta... (batek zioenez).

Zorionean, entzun dugunez, ba dihardute Xabier Kintana eta Gabriel Arestik, ez horrelako erdaraz egindako enciklopedia bat egiten, 40.000 hitzezko Euskal Hiztegi Enziklopediko bat balizik; eta lana aski\* aurreratua omen\* dadukate, denbora guti barru argitaratzeko moduan.

Hala ere, ez ezazue pentsa, ene errealsmoa errealsmotasun bat denik, errealsmokeria hutsa balizik, zeren\* eta errealitate horri idealista bat bezala jo diodala uste baitut.

## ANDOLIN EGUZKITZA


dauku, **deusku**, digu  
dezakegu, **dalkegu**  
diegu, **deutsegu**  
zalku, **jaku**, zalqu

diot, **deutsat**  
ezazue, **elzue**  
gaude, **gagoz**

guztietariko  
elektrodomestikak  
sukaldearen  
lagungarri



COCINAS



FRIGORIFICOS



LAVADORAS SUPERAUTOMATICAS

salneurri  
apartekoak  
1971



Edesagaz, bizitza goxoa elkarregaz

1971-n egindako produkzio handiari eskerrak ditugu holako salneurriak

## Mungia

### San Pedro Jaiak

Ekainaren\* 27an hasita, San Pedroak ospatu izan dira Mungian: betiko jaialditxoak, kalejirak, erromeriak, eta abar. Lehenengoz, udalak atolatutako euskal kanta salo bat izan genduan. Bertan Ana Tere eta Amaia, Josu Zabalondo eta Joseba Zarragak parte hartu eben. Kanta gozoak, poltikak, balna herriari ezer esaten ez deustoenak. Jai honeetan jendea ugari izan zan... tabernetan. Noren errua?

### Atahualpa Yupanquiren entzuketa

Uztailaren\* 10ean, «Elkartasuna» aretoan,\* Atahualpa Yupanquiren diskoen entzuketa eratu zan. Azterketa lan bat egin zan, kantariaren esagura eta bizimoldea konparatuz. Argi gelditu zan, kontrazio ugari dituan gizona dala: herria kantatzeko gai, baina herriatik urrun bizl dana.

### Sukaldi eguna

«Elkartasuna» taldeak antolatutik, urte batzuetan isilik egon izan dan «Sukalki» Eguna\* ospatu izan da uztailaren 11n. Azken egunerarte «boikot» hitza ahoz aho ibili zan, programan agertutako H letragatik batez ere. Azken egunean herrian jai horretarako egoen animazioa ikusita, danak joan ziren «sukalki» hori egitera. Golz erdian kantari batzuk ere izan genduzan: Ana Tere eta Amaia, Mungiko Itziar, Jon Enbeita (lehen aldiz Mungian) eta «Oskorri» taldea.

### Alfabetatzea

Zerbait baztertu egin da aspaldion alfabetatze kanpalna, jaiak, oporrak, udako ikastaldak eta abar direla ta. Laster hasiko gara berriro lanean. Honekin batera, del egiten deustegu sukalki eguneko programari hain kritika gogorra egin deustoen «jakintsu» danel: Guk ere ikasi nahi dogu. Zatoze, bestela ez zaree gure euskara arloan onartuak izango.

## Bedia

Bediako gazte bat nalz eta lehenengoz idazten dot, geure herriko berriak aldizkari honetan emanez, jaiak direla ta. Batasun zalea izanik, zuzendu eta aldatu behar dana.

Bedia herri txiki bat izan arren, inportantzia handia daukala uste dot, bai kondaira eta bai euskararen aldetik.

### Jaiak

Ekainaren\* 24ean, San Joan jaiak ospatu ditugu, eta «Lagun Onak» elkarteko bazkideek parte hartu dabe eurotan. Bediako gazterik gehienak dira elkarte horretakoak. Jaiak antolatzeke balmena berandu etorri arren, euskal kutsu bat izan dabe: eskupeleta txapelketa, ihiztariena,\* makallau lehiaketa,\* eta, gauzarik ederrena, «Lagun Onak» elkarteko txistulari eta dantza taldeak. Dantza talde hau aurtan gertatutakoa da, Igorreko\* Julen eta Aintzine eta Bediako Jesus Mari gazteei eskerrak.

Jaletan, uste genduan balno jende gehiago bildu\* da. Herriko enparantza\* txiki gelditu da, eskola berrien obrakatik. Gu pozik lotu gara, datorren urtean jai hobeagoak egiteko itxaropenarekin.

### Ezteiak

Uztailaren\* 18an ezkondu dira Zeanuriko San Andres elizatzoon Miren Eurne Bediako eta Joseba Iñaki Areatzakoa.\* Ezkontza honetan parte hartu dabenak, euskal itxurara jantziak, gazteak izan dira gehienak.

BENJAMIN ATUTXA

**BYASS 96**

¡lo ha dicho un hombre!

brandy  
**BYASS 96**  
Destilado de selectos vinos. Solera especial.

**GONZALEZ BYASS**

CON TAPON IRRELEENABLE

cinsa etxearen bi disko berriak

## URRETXINDORRAK

I

Haurra sehaskan  
Haurraren jakintza  
Ohitura zaharrak piztu  
Bake ta maitasun kanta

II

Markesaren alaba  
Ama euskera gaixoa  
Maitasun bila erromes  
Nahi nuen kantatu

# SAN FERMIN BOLARAZ

Aski\* dela uste dut. Barregarri deritzat geure egoera tristeari. Izorraketa\* gaiztoz eta azpilan zitalez aski dugu.

Arestian,\* norbaitzuek «pluralismoaz» iharduki\* dute. Baina beroiei diotset: Ez zaitezela gehiago neka, zeren\* egun Euskal Herrian hitzek ez dute gehiago esanahirik. Zenbait\* hitz usteli kiratsa dario. Hutsak gara, eta oraíndio ere geure hutsaren hutsa hustu nahiz gabiltza. Une honetan Hölderlin-en hitzak datozkit burura:

**«Gu zentzunik gabeko  
keinuak gara.  
Zekenak, gogorrak  
eta Herritikan urrun.  
Hitza ere galbide  
daramagu.»**

Delako «pluralismoa», norik beraren interesak estaltzeko erabilia izan da. Ez du, beraz, hitz honek aurrerantzean esannahi jatorrik izanen. «Pluralismo» hitza hutsa da, hots soila da, hitz bortxatua da.

Iruineko San Fermin jaiak amaitzera doaz. Eta han bertan Euskal Herriaren gaitza eguzki argitan ezagutu dugu.

Berrehun eta lauogei euskal irakasle bildu\* ziren Iruinean, ikastaro bat izateko asmoz. Eta bat batean jakina dute ez dutela aurtengoan ikastarorik izanen, galarazia izan denez gero. Hau San Fermin bolaraz Euskal Herriko Iruinean gertatu berri den historia tristea! Baina hau, azala ezik, ez da ezer; aitzitik,\* historia honen funtza\* azpilanean eta elkar ezin ikusian datza.\*

Ikastola, neke handiz jaiotako haurra da. Baina, ene aburuz,\* egungoan bezain neke handirik gutti izan du, bere kondaira apur eta ttipian zehar.

Baina Iruinean gertatuak ba du alderdi onik ere. Zenbait\* irakasle, lasai eta tenple epeleko zena, hain nabarmen eta desegoki salatua izatean, kontzientzia berri batez jantzirik etorri da etxera. Iruinetikan, irakasleak batu eta indartuta irten\* dira. Ezbeharrak bateratzaile da. Ezbeharrak, lehenik izutu, gero argitu eta finean bizkortu egiten du. Iruinean, ikastolak bere jatorria eta xedea\* aurkitu du.

Ez zaitezela, andereño, orain zapuztu\* eta mindu zeure zorte gaiztoz, zeren, guztitara ere, hainitz\* eta handiak dira hortikan etor daitezkeen laudorioak,\* ohoreak eta abantailak. Besteak beste, zeure bidea aurkitu duzu. Eta norberaren ezagutzea duzu iraultzaile.\*

Iruineraz gero, ikastolak ez dira lehengoak izanen. Mahai gainera ekarriak dira zenbait lekuko.\* Eta lekuko hoik\* ez dira edonor. Lekuko hoik Herria eta haren «sasi-guraso» antzuak\* dira.

Behingoz ba dakigu, nor nor den eta bakoitzak zer nolako manejoak darabiltzan. Hau gauza premiazkoa genuen, zeren\* argi dakusagu orain, lehen ezin ikusi genuen hori nor den.

Lau apaiz zital izan dira egoera hau sortu daukutenak; baina eraztunak katea dakar, eta lau hauen ondorean

beste zenbait sasi-euskaldun ausnar\* daiteke. «Sasi-euskaldunak» diot, bai; zeren etxekoari oztopo egien dionak, kanpokoari amor ematen dio.

Elizari zerbait eskatzen badiogu, zerbait hori ARGIA da. Baina inoiz ere onartuko ez duguna zera da: Zenbait elizgizon ilunpearen morroin\* izatea eta bere jokabideak itzalekoak eta azpikoak izatea.

Elizak zerbitzua predika lezake, baldin lehen bere morrontza gauza frogatua\* bada. Baina maixioz jokutzen badu, bere hitzak huts eta ustel gertatuko dira.

Asko da gure artean «liberal» eta zabala deritzana; baina inor gutti da zabalkunde hori bere ekintzetan frogatzen duenik. Agian\* zabal eta «liberal» beren burua jotzen duten berauk, zabalera hestua eta neurri hertsia\* dute arau. Inkisidore handienek ere egizale zireneko il-lura\* zuten beren okerraren euskarri.


Iruinean gertatuaz gero, Ikastolaren egoera funtsean\* eraz aldatu dela gauza segura eta klaroa da. Ez da aurrerantzean elkarrenganako mesfidantza besterik izanen. Eta mesfidantzak maizter\* txarra du zuzentasuna.

Han eta hemen entzuna dut «azken hitza Herriari dagokio...» Baina nor da Herria? Erantzun gaitza benetan, galdera hau. Halaz ere, segur naiz, Herria ez dela inoiz ere garaile eta juez izanen. Herria apala da. Herria mendekatua\* da. Non kateak, han Herria! Nor izorratua\*, hura Herria! Eta hau, kondairaz aise\* frogatua den gauza da.

Historia triste honen bukaera, honela da: «Egun batez, San Fermin mugako jaiak ziren Iruinean. Uda zen. Zezen beltzak hilak ziren. Zahagi ardoak agorrek ziren. Bukatu zen festa. Eta lepoko gorria, malko bat edo izerdia sika-tzeko ona zen... Euskal Herriak Iruinetik etxera bihurtu beharra izan zuen...».

LUIS HARANBURU-ALTUNA

daltezteke, **daltekez**  
dakusagu, **ikusten dogu**  
daramagu, **daroagu**  
daukute, **deuskue**  
dio, **deutso**  
dlogu, **deutsagu**  
diot, **dinot**  
diotset, **dinotset**, esaten diot  
lezake, **leike**



## Eritzi desberdinak

ANAITASUNA aldizkingiko Jaun lagunak.

Zuen aldizkaria oso atsegingarria da neretzat eta Arjentinako beste euskeltzale batzuentzat, gure izkuntzaren aldeko lan onuragarria egiten daualako. Lenengo gauza: euzkerea landu, erein ta zabaldu. Zeregin onetan danok aburu\* batekoak izan ez arren, goralgarriak neretzako lan eskar-gaiztoko onetan sartuta dabilzanak. Il zorian dagon izkuntza berpiztutzeko, danon lanak eta aleginak ez dirala naiko izango uste det, ez baditugu lortzen oinarri bereziak. Ala ta guztiz ere, gure bete-bearra, euzkerearen alde al degun guzia egitea da. Ez degu otar\*-ondora bota bear besteen lanik, eta, gutxiago, gogo onakin dabilzanen aurka egin.

ANAITASUNA'ren 208'g. zenbakian agertu zan «Euskaldungoa» orrialdean idazkitxo bat, «Ikastola batzuetako irakaspenak» izenduna.

Azke\* gara, izkuntza galetan, gure eritxiak eukiteko. Danok ez degu berdin oldozten\*; beraz, ondo deritxot beste batek nik bezela ez pentzatzia. Baina ez detana ondo billatzen da idazki orren egilliak erakusten dauan zitalkeri dollorra,\* Laudio'ko ikastolan erakusten daben euzkerezat. Laudio'tarrak euzkerearen aldeko lana egiten ba-diardue, ondo be obeki dago. Kupitu\* gaitezen iragango\* dituen lzerdi ta larrialdiekin, eta ez bota arpegietara «zorionez» gero ta gutxiago dirala euren ikastolen bezelakoak; eta dana, ANAITASUNA'k dinoanez, **urrutizkiña, idazkortza ta irola** irakasten deutseezalako umieri, ta ez **telefonoa, luma ta komuna**. Ikaragarria benetan, lotsagarria ez balitzake, orretaraino eltzia batzuen Arana'rendako ikusi ezina. Arana'ren jarraitzale asko gera «zorionez» oraindik; eta, gizon bezela erruak\* euki zituan arren, izan zan euzkerearen berpiztzailea, eta berak jarri zituan oinarrietatik jarraitzen degu euskerazale guztiok. Eredü\* argi ta garbia danontzat.

Ez gera euzkera batuaren aurkakoak, baina alde aundia dago izkuntza izundu\* erderakadaz betetako bat erabiltera. Al degun artean erabili daigun euzkera garbia, eta alegindu gaitezen osatzen izkuntza eta ez lizuntzen. Beste laterri\* batzuek ere alegintzen dira beren eleak\* garbitzen. Islandia orretan dabil garai onetan.

Garbiegla ulergatxa bada erriarentzat, ez degu uste ulergarriago izango danik guretarrentzat, zuen aldizkingiaren zenbaki berberan irakurri degun esakuntza au: «posibletasun praktikoenganako mesfidantza», edo beste au: «estudio ekonomikoen panorama».

Kintana jaunak 211'g. zenbakian dinoana Iparraldeko idazleel, ederki dago; zintzo ta bidezko billatzen degu «Herria» aldizkariari esaten diona: batzuetan frantsestua goga dela dirudi». Ezarri daigun gure aldeko idazleel Kintana'ren eritzia.

Inorl «hiperaranista» deltu gabe zitalkeriz beteta, alegindu gaitzen goraltzen euzkerearen alde lanian diarduen guztiak, Inor esetsi\* gabe.

Arjentina'n, uztaila\* 1971  
ISASI

Zuzendaritzaren oharra: **Dudarik gabe, jarraigaria da guztiontzat Laudiotarren euskalzaletasuna.** Hala ere, gure ustez, euskararen etorkizuna ez dator horretariko bideetatik. Isasi jaunaren esku-titza, beraganako errespetuagatik, berak darabilan euskara moduan argitaratu badugu ere, beti uste izan dugu —eta hala jokatu dugu— euskara batuaren arazoa\* hil edo bizikoa dela. Sabino Arana zena-ren ideiak, berriz, zinez\* onartzen ditugu, eta horregatik ari gara geure lan honetan. Baina Sabinoren ideiei, ezer baliotasunik izan dezaten, zientziak eta teknikak izan dituen aurrerakuntzak eta joera berriak erantsi\* behar zaizkie, «ardo zaharra zahagi berrietan isuriz». Hizkuntzalaritzaren landa barruan, ostera,\* maisu handien uste zuzenez, ardo zahar hori zahagi berrietan isurtzea beharrezkoa be-zain premiazkoa izan da.

Eskatu "ANAITASUNA" ren  
kalkomaniak

## Euskaralari bati hitz bi

«Norbaitek esan dezake agian,\* berriz ere euskera arloaren inguruan aztertzen\* ari gerala, eta hobe litzakela proletargoaz hitz egitea.

Proletargoaz hitz egiteko garaia etorriko ahal zait. Baina, euskeraren hil edo biziko kinka\* hestu hau benetan larria denez, ez dezakegu inolaz ere denbora gal. Zenbait problema arrunt\* izan dai-teke mundu zabalean, baina euskeraren problema euskaldunoi baka-rrik dagokigu...» (Imanol Lasplurrek, ZERUKO ARGIAN, maiatzaren 30ean idatzia).

Bapo, Imanoli Hori bai dela eltzetik\* babak ateratzea. Zuria edo beltza, euskararen alde jo edo denbora gal! Metafisika zer den jakiteko, zure esandako hori agertzea baino, exenplu garbiagorik ba ote dago? Mundua hain ximplea balitz, erdibiderik edo konplejidade-rik ez litzateke sortuko; eta horretan bai, zuen eskolakoak izango lirateke nagusi, dialektikoak aitzitik\* zokoratu edo baztertuak.

Harira noa. «Ez dezakegu denbora gal». Eglazki ezetz. Gaur egunean denbora urria da. Baina jakin nahi nukeena hauxe da: Egu-neroko burrukan, denbora irabazte honetan, euskararen kinka\* larri honen sustraiak eta langile arazo mugimendu zabalaren erroak non bereizten dituzu, euskararen aldeko lan solean izan ezik, denbora galtzen dela esateko? Hori, planteamendu teoriko jeneral bezala. Bestalde, esango dautzut, euskaldun guztiok (zeren\* euskalduna iza-teak ez baitu adierazten bakoitzaren gizarte klasetasuna) ez ditu-gula berdin ikusten (ez eta sufritzen ere) problema «arrunt» hoik. Bestela (lotsatzen ez bezara, noski\*), galde lezozu «Altos Hornos» eko langile bati, ea zer laguntza dadukan, bere arazoa\* soluzionat-zeko. Zeure intelektual itxurarekin planteatzen lezozu, «Euskeraren kinka larri honetan» zeri ematen dion garrantzi handiagoa, euska-rari ala proletargo arazoari.

Seguru asko ez dautzu erantzungo. Baina, kasualdidez, langile euskalzale bat topatzen baduzu, esango dautzu, bere euskal itotasu-nean eta langile situazioan, bide bat bakarrik aurkitzen duela, eta bide honetan prioridadeen mugatzeari, zuk egiten dituzun ximpleke-riekin, astakeria bat eta burges intelektual baten larritasun esisten-zial bat deritzala.

Adibide bat Jarriko dautzut. Joan gaitezen Gastelzera. Gastelzen ere euskal arnasaren pizkunde bat ari da sortzen. Bertan, langile askok beren semeel euskara irakatsi nahi diete. Baina gertatzen da, gaur egun diren ikastolak guztiz mugatuak daudela haien posibilidade ekonomikoentzat. Langile izateak mugatzen die euskaltasuna. Aitzitik,\* lantegi berrien nagusi euskalzaleen semeek libre dadukate euskaldun izatea. Hor dago kakoa.

Aspalditik ari zara, «Leporalno gaude» eta horrelako beste artiku-lu zenbait idazten, euskara salba dezagun esanaz. Baina zure oi-hu hoik abstraktoak dira herriarentzat. Nola uste duzu soluzio bat lortzerik, herriaren arazo jenerala soluzionatu baino lehen? Zure postura guztiz utopikoa da, eta, gainera, oso engainagarria herriaren-tzat. Begira: herria, ehuneko laurogelan, langileek osatzen dute. Euskararen arazoa herriaren arazo bat da. Herri langilearen arazo bat bereziki.\* Eta, horregatik, problema arruntetan\* denbora gal-tzeko astirik ez dugula esanaz, horrekin euskara salba dai-tekeela pentsatzea, inuzentakeria bat da.

JAKA

daude, **dagoz**  
dautzu, **deutsu**, dizu  
dautzut, **deutsut**, dizut  
dezake, **daike**  
dezakegu, **daikegu**  
die, **deutse**  
diete, **deutsee**  
dlo, **deutso**  
lezozu, **eiiozu**, ezalozu  
zait, **jat**

## Pilota jokoa eta euskal literatura

Gure literatura eskolatik irakatsi ezik, ez da harrizkoa, ezer ez dugunaren usteak irauin ahal izatea. Eta gure herriko eruditoak ere uste horretan bizl dira. Hala dirudi.

Pilotarekin ari gara, baina inori pilota egiteko asmorik gabe (erdaraz, «sin hacer la pelota edo pelotilla»).

Gehlenok dakigunez, deporteen bibliografian maisu dugu Joxe Iguaran tolosarra. Eta 1953.ean Tolosan izan zen uholdean agiri\* askoren galera izan bazuen ere, haren bibliografi artxiboa oso aberatsa da. Hain zuzen, 1965.ean Banco de Tolosa-k publikatu zuen liburuxka batean, «El juego vasco de la pelota. Autores antiguos y modernos que nos hablan de la pelota» lana argitara eman zuen, pilota nolabait alpatzen zuten egileak urtez urte zerrendan jarriaz. Ez da berriketa: Moises-engandik hasi eta 1958.eko Lartigue-ganarte.

Zerrenda horretan, konturatzen garenez, erdaraz idatzi duten Euskal Herrikoak kontuan izan ditu Iguaranek; eta, inoliz euskarazko azaltzen baditu, litzueta edo Zaldubi adibidez, ba dirudi, holer berriak ere erdarazko egileengandik edo Itzulpenetatik izan dituela. Honegatik, egilearen ondorean ipintzen duen urtetik konturatuko gara (liburuaren titulurik ez baltu jartzan), kontuan izan duen **Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondalra** Itzulpena dela, hobeto esan, Itzulia izan zen lana dela, eta Itzulpenik izan ez duen **Gulpuzcoaco provinziaren Condalra**, 1847.ean argitaratua, ez dela haintzat hartzen. Eta lan honek, bere hirugarren zatia 8. kapituluari, pilotari buruzko gauza jakingarriak dakartza.

Arrazol beragatik ez dakar Axular, **Gero** (1643) liburuaren 49. kapituluari buruz lharduki arren. Ez eta, Axular baino lehen euskal literaturan, pilota alpatu zuten Etxeberri Ziburukoa eta Pouvreau (bere hiztegiaren honek).

Iguaranek, 1853.ean alpatzen du Gorosabel, baina ez urte berrean **Euskaldunac** poema argitaratu zuen Hiribarren; eta honek, «Pilota Yocoa» izenezko poema luze bat hasten du 211. orrialdean. Juan Antonio Mogelek berak ere, 1800.ean argitaratu zuen **Confesio ta comunloco sacramentuen gafiean Eracasteak** liburuaren 63. orrialdean alpatzen du pilota jokoa. J. B. Agirre Asteasuok, **Confesio ta comunloco sacramentuen gafiean eracusaldak** (1803) liburuaren erakusaldian, zenbait aldiz dihardu pilota jokoari buruz.

Aztertzen\* jarraltuko bagina, oraindik, euskarazko egileen artean, askoz ere izen gehiago aurkituko genituzke pilotaren alpamena egin dutenak, eta Iguaranen lerroetan ez daudenak. Penagarria, hainbeste hizkuntzatarako egileak alpatzen direlarik, gure herrian bertan, eta eruditoen artean galnara, euskaldun egileak ezagunagoak ez izatea. Berriz ere esango dute, ez dugula literaturarik.

Hau ez da, Iguaran pertsonalki salatzearen, eruditoak oro\* balzik. Bide batez, hurrengorako, hutsa osatzeko bidea ematen dugu, norbait kontuan hartu nahi badu.

JUAN SAN MARTIN

## Ikastoletako problemak

Aurreko ANAITASUNAn ikusi genuen, ikastola batean jazo\* zena.

Hiru urteko 30 haur hasi ziren ikasten. Bost urte geroago, 15 geratu\* ziren. Besteak gurasoek atera zituzten, entzute handiko erdal kolejiotara eramatearren. Orduan kuotak, gastuak ordaindu ahal izateko, 400 pezetatik 800era jaso\* behar izan ziren. Ikastolan sinesten ez zutenek ikastolaz aprobetxatu ziren, besteen kaltetan.

Hemen, aurrez aurre, burruka hau planteatu zen: guraso batzuen interes partikularra alde batetik, eta bestetik ikastola (kooperatiba gisan antolatua).

Ikastolako batzordeak\* problema hau sakonki aztertu\* zuen. Kooperatiba defenditu behar zen. Ez da gero txantxetako, kuotak 400 pezetatik 800era jaso beharra.

Zorionez, matrikulazio berriak asko ziren 3 urteko haurretan; eta batzordeak, eskarmentua harturik, zetozen berrien artean hautapen bat egitea erabaki zuen. Hala asmoa hauxe zen: hiru urteko haurrekin 30 ikasleko talde bat egin, eta ikastolan irauin erazi 14 urte kunplitu arte, arrazoiak kasuren bat izan ezik.

Kooperatibako batzordeak, kolektibitatearen defentsarako, erabaki hau hartu zituen:

- Familia bakoltzak 5.000 pezetako fidantza eman behar du (pagatzeko errazpideak emanen dira). Haurra 14 urte kunplitu baino lehen arrazoirik gabe ateraz gero, gurasoek galdu egingo dute fidantza hori.
- Arrazoirik gabe seme bat ateratzen baldin bada, beste neba-arreba guztiak ere atera behar dira, eta aurrerantzean familia holer hitxita ukanen dituzte ikastolako ateak.

Erabaki hau guraso guztien batzar nagusian presentatu ziren. Tentsioa. Norbait bere boza altxatu zuen: «Hori, gizonaren lbertatearen kontra doa». Beste batzuek erantzun: «Kolektibitatearen defentsa da».

Botoetara eramane, eta erabakiak aprobatuak izan ziren.

Ikastola hori, salbatu da. Ez da aurrerantzean parbulario bat izanen. Aulak beterik edukiko ditu. Irakasleen «produktibitatea» (hain modan dagoen hitza) ehunetik ehunekoa izanen da. Ikastola honek autofinantziazioa lortu\* du eta irakaskintza on bat eman ahal izanen du ikasleen heziketaren\* onerako.

Erresumen bezala, hau esan behar dugu: Batzuek txantxetan hartzen dute ikastola, eta ikastola ez da huskerla bat. Batzuek, euskara umekin berba egiteko bakarrik erabiltzen dute; eta euskara ez da umekerla bat.

Beste batzuentzat aski\* da, euskaraz «agur» eta «eskerrik asko» esaten jakitea; erromerlari joateko, txapela eta abarkak jantzea bezala.

Bukaeraz behar dugu betiko geure arteko euskalzetan\* hori.

Adinekoen artean erabili behar dugu euskara, eta edozein gal tratatzeko, nahiz eta «Elbarreko euskara» izan. Euskara kultur mailara jaso behar dugu, eta horretarako ikastolak defenditu behar ditugu.

XABIER GEREÑO

## DEPURACION DE AGUAS

S. A.

urak moldatzen berebizikoak

edangarritu - industrierako - zikinduak - piszinak

Tel. 32 37 00-31 00 10-32 37 01

Gordoniz 44. BILBAO.





**HIZTEGIA**

**Ale honetan izartxo batekin agertzen diren berbak**

**IMANOL BERRIATUAK**

ABURU, eritzi.  
 AGIAN, nonbait, **seguramento**.  
 AGIRI, documento.  
 AHANTZ, ahantzi, ahaztu (**potentzialetan**).  
 AIHENTSU, sarmentoso.  
 AISE, erraz.  
 AITZITIK, al contrario.  
 ALABAINA, hala ere.  
 ALDEROKA, tambaleándose, chancelant.  
 ALERGIA, esto es, a saber.  
 AMILTEGI, precipicio.  
 ANTZU, estéril.  
 ARABERA, araucra, según.  
 ARAU, norma.  
 ARAUERA, arabera, según.  
 ARAZO, problema, asunto.  
 ARE, oraindik.  
 AREATZA, Villaro.  
 ARESTIAN, oraindik orain, berrikitan.  
 ARETO, sala, salón.  
 ARRUNT, corriente, ordinario.  
 ASKE, libre, libro.  
 ASKI, nahiko.  
 AT, kanpo.  
 ATONDU, antolatu.  
 ATSOTITZ, refrán.  
 ATZIPAMENDU, engaño.  
 AUKERATU, hautatu.  
 AUSNAR, ausnartu (**potentzialetan**).  
 AZAZKATU, desahogarse, se délasser.  
 AZTERTU, ikertu.  
 AZTORATU, azorarse, s'effarer.

BAJE, olatu handi, uhin handi.  
 BAKOITZ, bakar.  
 BANDATO, pañal, lange.  
 BARREIATU, dispersar.  
 BATZORDE, comisión.  
 BEDERA, bakoitz.  
 BEDEREN, beñik behin, behintzat.  
 BEHINEN, printzipal.  
 BER-BAKOITZ, mismo y único.  
 BERBER, bakar.  
 BEREZIKI, batez ere.  
 BIL, bitu (**sujuntiboetan**).  
 BILDU, batu.  
 BIR-ILOBA, biznieto, arrière-petit-fils.  
 BOKART, antxoba.  
 BOLANDERA, zirrita, zirrika, **coñete**.  
 BORT, sasiko, enfant naturel.  
 BUKATZEKE, bukatu gabe.

DAKARKE, dakar nonbait, bide dakar.  
 DATEKE, da nonbait, bide da.  
 DATZA, dago, consiste. (Etzan **aditzaren forma**).  
 DAUAGU, deagu, dlagu. (Ikus «Sustral Bila», 118).  
 DEIT, delitu (**Imperatiboetan**).  
 DIRAUT, irauten dut, **continúo**.  
 DOILOR, ruñ, villano, bas, vilain.

EGITURATU **estructurar**.  
 EGUN, gaur.  
 EI, omen.  
 EIHAR, ihar, Igar.  
 EKAIN, junio.  
 ELDARNIATU, dellrante.  
 ELE, hitz, berba.  
 ELTZE, lapiko.  
 EMAZURTZ, umezurtz, huérfano, orphelin.  
 ENPARANTZA, plaza.  
 ERAKUNDE, estructura, sistema.  
 ERANTSI, ezarri, añadir, ajouter.  
 ERATZAN, etzan erazi, **recostrar**, faire coucher.  
 ERDEINATU mesprezatu.  
 EREDU, modelo.  
 EROSTA, lamento.  
 ERRESUMA, erreñu, estadu.  
 ERROMES, bellarl, peregrino.  
 ERRU, huts, falta, hoben.  
 ESETSI, **etacar**.  
 ESKUALDE, comarca.  
 ESNARAZI, iratzarri, iratzartu, **despertar**.  
 EULTZEN, eultzitzen, uizitzen, **trillando**.  
 EUSKALKI, dialecto vasco.  
 EZEIN, ninguno, aucun.  
 EZPADA, baizik.  
 EZTEUS, **inexistente**.

FROGATU, probar, **demostrar**.  
 FUNTS, sustancia, fondo.

GAFAK, lunetak.  
 GAINDI, gainditu, **superar** (aditz laguntzaila gabeko galdera Indirektuetan).  
 GATAZKA, burruka.  
 GELDOTASUN, **Imbecilidad**.  
 GERATU, gelditu.  
 GIZA-LEINU, género humano.  
 GORDALEKU, **escondrijo**, cachette.  
 GRAZIA, izen.  
 GUTIZI/TU, deslratu, **desear**.

HABE, viga, poutre.  
 HAIK, hareek. (Haiek aktibo, **halk** pasibo).  
 HAINITZ, asko.  
 HARLEZE, harri leze, sima, ablme.  
 HARTZARA, berriro.  
 HAUK, honeek. (Hauek aktibo, **hauk** pasibo).  
 HAUTSI, hausti.  
 HEDAPEN, extensión, **propagación**.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HEGALUZE, bonito, germon.  
 HEIAGORA, gemido, gémissment.  
 HEIN, neurri, medida.  
 HERETAJE, heretatzeko eskubide. (Leizarraga).  
 HERTSI, hestu.  
 HESTUTU, hertsitu.  
 HEZIKETA, educación.  
 HEZITZAILE, educador.  
 HILDO, surco, sillón.  
 HIRI, huri, ciudad.  
 HITANO, hika, tuteo.  
 HOIK, horreek. (Holek aktibo, **holk** pasibo).  
 HOTS, a saber, esto es.  
 HUNTZ, yiedra, llerre.

IGO, igon, Igan.  
 IGORRE, Yurro.  
 IHARDUKI Jardun.  
 IHIZTARI, cazador.  
 ILE, ule.  
 IMAJINA, Imajinatu (**potentzialetan**).  
 INKESTA, encuesta, enquête.  
 IRAGAN, Igaro, pasatu.  
 IRAIL, buruli, septiembre.  
 IRAULTZAILE, revolucionario.  
 IRENTSI, Iruntel.  
 IRTEN, urten, atera, jaig.  
 ISTRIPU, accidente.  
 ITSASMURRU, rompedoras.  
 ITSATSI, adherir.  
 ITUN, contrato.  
 IZORRAKETA, acción de fastidiar, de molestar (eufemismo).  
 IZORRATU, fastidiar, jorobar (eufemismo).  
 IZUNDU, falsificar.

JADANIK, ya.  
 JAINKOTEGI, **tempio**.  
 JARAMON, kasu.  
 JASO, aitxatu.  
 JAZO, gertatu.  
 JELA, hieho, glace.  
 JO, **considerar**.  
 JOKAMODU, **conducta**.

KIDETU, **identificarse**.  
 KINKA, kenka, momento crítico.  
 KOLOKAN, kilikolo.  
 KUPITU, errukitu, urrikaldu.

LANSARI, **Jornal**.  
 LARRAIN, ora, aire.  
 LARUNBAT, zapatu.  
 LATERRI, erreñu, estadu.  
 LAUDORIO, alabanza.  
 LAUSO, nube del ojo, chose obcurcul-esant la vue.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEHIAKETA, **competición**, concurso.

LEKUKO, testigu.  
 LILURA, fascinación.

LIMIKATU, miatzatu, **lamer**, lécher.  
 LIZARRA, Estella.  
 LORTU, ardietsi, erdietsi.

MAIZ, sarri, sarritan.  
 MAIZTER, Inquilino, locataire.  
 MALKAR, escarpado y pedregoso, escarpé et pierreux.  
 MANJADERA, pesebre, crèche.  
 MARRASKILO, caracol, escargot.  
 MARRUBI, mailuki, fresa, fraise.  
 MAXELA, mejilla, joue.  
 MEA, mineral, mina.  
 MEATZA, meatoki, mina.  
 MEHAR, hestu, hertsu, **angoasto**, étroit.  
 MENDE, siglo.  
 MENDEKATU, vengar.  
 MESFIDANTZA, **desconfianza**.  
 MORROIN, morrol, **servidor**.

NEKATUOZ, nekatu hauekin.  
 NON NAHI DEN, en todas partes, donde quiera que sea.  
 NORAEZEKO, **Inevitable**.  
 NOSKI, naski, **claramente**, claro está.

OHORGOA, robo, vol. (Ikus «Sustral Bila» 22).  
 OHOSTU, robar, voler.  
 OIHUKATU, proclamar.  
 OIHARTZUNZKATU, resonar, hacer eco, faire écho.  
 OLA, lantegi, fábrica.  
 OLDOZTU, pentsatu.  
 OMEN, el.  
 ONDIKO, desgracia, **Infortunio**.  
 ORAIN, presente.  
 ORDEA, ostera, berriz, aldiz, en cambio.  
 ORDETAN, ordez.  
 ORKUME ora kume, zakur kume.  
 ORO, guzti.  
 OROIT, oroit (**potentzialetan**); oroitzen dena (**memor**).  
 OROITZAPEN-GÜZTIETAKO, gauza guztiak memorian dituen.  
 OSTERA, ordea, berriz, aldiz; **vieje**, voyage.  
 OTARRA, otzara, cesto, panier.  
 OTZAN, manso, doux.  
 OZEN, sonoro.

PISU, astun, **pesado**, lourd.  
 PRESESKI, con precisión, avec précision.  
 PRIMU, heredero, héritier principal.

SAIAERA, entsegu, **ensayo**, essai.  
 SAIATU, entseatu, **bermatu**.  
 SAKRIFIKADORE, **fontifex**. (Leizarraga).  
 SALBUESPEN, **excepción**.  
 SITS, polilla, teigne.  
 SOIL, mero, solo.  
 SORAIIO, sarnoso, galeux.  
 SUKALKI, **guisado**, ragañt.

TRADITU, **traicioner**, trahir.  
 TROXATU, **envolver en pañales**, emmaller.  
 TXAPLIO, zirrita, zirrika, **coñete**.

UHE, makila, palo.  
 UHIN, olatu, ola, vague.  
 UKAN, izan (**aktibo**).  
 UKITU, ikutu, hunkitu.  
 UME-AR, **polluelo macho**.  
 URTE-GIRO, **estación del año**.  
 USA-KOLUNBA, uso, **paloma**. (Leizarraga).  
 UZTAIL, julio.

XEDATU, hesitu, **carcer**, clôturer.  
 XEDE, helburu, fin, **objetivo**.  
 XOLARTE, **tiempo libre**.

YAYO, bikain, **bravo**.

ZALANTZA, **duda**.  
 ZAMA, carga.  
 ZAMAKOIA, Zamakona.  
 ZAPUZTU, mukertu, mokortu, **hacerse hurafio**, devenir hargneux.  
 ZEIHAR, zehar.  
 ZELA, **silla de montar**, selle de cheval.  
 ZENBAIT, batzuk.  
 ZEREN (ETA), ze, **pues**.  
 ZERREN, carcama, **artisan**.  
 ZIKINZULO, cloaca.  
 ZIRREZ, benetan.  
 ZIRRADA, **emoción**.  
 ZUHAMU, zuhaitz, arbola.  
 ZUMEL, afejo, vieux.  
 ZUR, egur, madera, bola.



**ELAIS ALAI**  
**YURRE**

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra  
Astegunez: 7.tatik 11 ra.

KAFETEGI **AMASLUR** RESTAURANTA

# I. Sarasola: EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA

## Kritika solas

Ba zen ordua euskal literaturaren xede nagusiak kritikatzeko, bere kondairan zehar dituen alde on eta txarrak eta eraman dituen bideak aztertzeko; literario alde soiletik\* begiraturik, lingüistika alde batera utziaz. Hau du bere asmoa Ibon Sarasolaren **Euskal Literaturaren Historia** izenez argitaratu berri den liburuak.

Berebiziko hautsak jasoko\* ditu liburu honek. Izan ere, bat batean ez da erraza, tratatzen dituen puntu guztiak argi eta garbi adieraztea, ez eta ere ikusi ahal izatea. Beraz, ez da harritzekoa, liburu honek hutsak izan ditzakeela. Harritzekoa, hutsik gabea izatean datza.\*

Bere funtsezko\* esentzian, bat gatoz. Euskal literaturak egun hartu duen bidea, galak ugaltzea eta ideologia era guztietatik lan-tzea, hizkuntzaren eta beronen jabe den herriaren kultur iraupene-rako eta politikazko etorkizunerako behar beharrezkoak dira. Herri baten kulturarentzat prolezio bakar hutsa bait da, luzera begiraturik, bere izate guztia galbidea.

Argi dago, kritiko premia handian gaudela, ni ere kritikotzat jartzen nautelarik. Horrela izendatze honek, beste gabe, kritika egitea behartzen nau; baina, alferrik nahi izan behar bezalako aburuak egitea, ez nahi sentitzen behar lukeen mallatik hartzeko ahalmenez. Parterik gehienean ados nator, batez ere argudioetan. Eta argilegi ikusten ez dudan zenbait puntu, egilearen beraren eta Irakurlearen argibiderako adieraziko ditut. Inoiz egileari laguntzeko, eta hurrengo kontra egiteko. Hau bait da, ibonek berean markatu dautan bidea. Beraz, bere baimena dut.

Liburuaren lehen partean, aburu\* onez aztertzen daki autore zaharrak, Etxeparetik Axular eta Sarako eskolara eta Oihenart bere bakardadean. Parte hau da noski\* liburuaren interesatuenetako bat, eta urratsik seguruenetan finkatua.

«Compañía Guipuzcoana de Caracas»ek, ez dugu dudarik jar-tzen, bere garrantzia izango zuela XVIII. mendean,\* euskal literatura Gipuzkoan hasi eta gehitzean. Baina hobeto aztertu beharko litza-teke, gorakunde hori Sarasolak dioen neurrietaraino den; zeren\* mende erditik aurrera ilustrazioa ezagutzen zuen\* euskal teatro zaharrak, Sor Luisa eta Muniberen lanak lekuko,\* eta beste herrie-tan ere ezagutu zen\* goratzeak, normalena zen gurean ere bere influentzia agertzea. Bestalde, XIX.enak berak erakusten dauku, «Compañía Guipuzcoana de Caracas» ez zenez gero.

XIX.ean, 39. orrialdean, erromantiko garaia ukitzen\* duelarik, garaia hasierako Iparragirre ez du aipatzen. Bere poesia ongi moldatzen da erromantiko giroan; ez behar bada poesia idazteko moldeetan, baina bai berak duen dinamika eta sentimenduetan. Giro hau herriari sentieraz zion poeta dugu. Europako herri hain-tzek\* beren jabetasun librea hartu zuten garaia, barnetik ziren in-perialismo txiki asko hautsiaz.\* Hau hola delarik, Iparragirrek al-txatu zuen hotsak bere lekua behar zuen. Are\* gehiago, gaur ere oraindik, bere egarria ase ez zuen herriaren ahoetan bere kantak itsatsirik\* izatean.

44 eta 46. orrialdean barna adierazten duen klerikalismoa, be-har bada, neurritz hara doa. Ba dakigu, klerikalismoak, historian zehar, ahal izan duen naurriraino hestutu\* izan duela bere poderearen hesia. Baina kleroa klero izan da alde guztietan, konsigna antzera-koekin jokatuaz. Eta, herri tiptetan neurri horretarainoko azpizanez ari bazen, zergatik jokatu zuen eta jokatzeko ari Galizian zeharo bestaldera? Galizian ez zen hori gertatu. Eliza herri hizkuntza arrunt eta tiplaren kontra agertu zen, eta hemen ditu bere sustraiak Galiziako literatura antiklerikalak. Ikus J. Alonso Monteroren **Realismo y conciencia crítica en la literatura gallega**. Beraz, adierazi nahi dut, ez duela koinziditzen herri bietako Elizaren jokabideak, goiko agintaritzak toki beretik etorri arren.

Bestalde, Serafin Baroja (Pío Barojaren alita) baten kanta eta ateraldi antiklerikal eta antiklerikalak ere ba dira, adibidez. (Noiz iku-siko ote ditugu liburu batean bilduak? Merez du). XIX.aren lehen partean, Etxahunek ere ba zituen kanta antiklerikalak; baina denok dakigu gizaok zer burubide eraman zuen bere bizitza garrantzean zehar, eta bere kasua literatur mugimendutik zer bait apartatzen da, adierazi nahi dugun puntu hoietan.

Puntu hau ikutzean,\* alpamen berezia merezi zuen A. Irigaray-ren **Esbozo bio-bibliográfico de la literatura euskara profana** (del s. XV al XX) salaera\* lanak, bertako zenbait gal eta eritziz baliatu-rik. Lan honek «Príncipe de Viana» aldizkariaren 98-99. zenbakian (1965) ikusi zuen argia.

Liburuaren bigarren partean sartzean, S. Aranaren eskolatik sortu zen purismoa salatzen du. Eta, garbizaletasunarekin batean, arraza diskriminazioa eta klerikalismoaren neurrigabekeria. Izan ere, XX. mendearen sarreran ez zen politika jokorik bidezkoena. Aranek

aukeratu\* zuen jokabide honen oinarriak Larramendiren influentzia hartzen du, bere parterik handiengan. Baina arrazakeriaren sustralak askoz haruntzago aurkitu behar dira, euskara hizkuntzaren bitxi-keria ere bai. Garibay, Poza eta B. Etxabegaren ere aurkituko ditugu kontzeptu hoik. Paradisuko hizkuntza bitxia eta arrazatiko noblezia hoiak erabili zituzten, eta Klaberlak Ziburuko Joanes Etxeberriri egin bertsotan ederki burlatzen ditu.

Baina partiturik adieraziko ditugu:

Hizkuntzaren bitxitasuna, ordutik hasi zena, Larramendiren bi-dez, goraka etorri zen Paulo Astarloaganarte; eta S. Aranek P. As-tarloa hartu zuen modelo, hizkuntzaren purismoan behintzat.

Arraza kontua —Tubalengandik zuten gentozela euskaldunok—, arestian\* aipatu ditudan E. Garibay, A. Poza eta B. Etxabek beren ustez erabili bazuten ere, kontzeptu oso espainiar erresumakoa\* da bere oinarrietan. Eta ez, «fiesta de la raza» zelebratu izan duen nazio bakarra delako noski;\* baizik, argi dago, lehen noblezi kasta, gure probintzietara, Gaztelako erregeen «aitoren seme» (aita onen seme) eta gainerako noblezi tituluetatik hasi zela. Behar bada, eta hala zen seguru asko, aurretik ziren «ahalde nagusien» bukaera on-dorean sortu ziren haiek utzitako handinahiaren tokiaren betegarri, konde, markes, hidalgo eta gainerako handiki tituluok Gaztelako erregeek ematen balt zituzten, eta ez gure probintzietako batzarrek. Eta ez da historia asko jakin beharrik, «villano» eta «vasallo» eta antzerakoek zer giza maila zuten jakiteko. Orduan, euskaldunok, beren foruen bidez, ez zuten onartu beren artean holako bereizkun-tzarik. Euskal Herriatik Irtelean,\* beren buruak «villano» eta «vasallo» bezala agertzean, Biltzar Nagusien eskaria izan zen, hemengo guz-tiak maila unibertsal batean berdintzea, «aitoren seme» (hidalgo) titulua hartuaz, gizon bezala errespetatuak izateko. Ikus honetaz, beste zenbait estudioren artean, K. Etxegaraykoaren **Investigacio-nes históricas referente a Guipúzcoa**-ren lehen kapitulua.

Egoera honetan, lehen aldiz, herri oso bat hornitzen da gizon errekonozitu mailan (edo seme errekonozitu, «hijo de algo» **hijo-dalgo** edo **hidalgo**, eta ez **bastardo**). Larramendik defenditzen zuen nekazari noblea, zapatarri noblea eta abar, alfer eta alproja nobleen aurrean, euskaldungo defenditu nahirik, gure noblezia apalaren kontra ateratzen zirenen aurrean (ikus **Corografía**-ren «De la nobleza...» kapitulua). Gertakari hauetatik, Gaztelan liberalismoaren garaian nobleziak lehen zuen prestijioa galtzea, gutti batzuk zirela-ko titulundunak eta hainitz gabeak. Gabeek Irabazi zuten beren ert-zia poliki poliki. Baina Euskal Herrian ez zen hori gertatu: noble izatea denek ahal zuten, harrokerian erori\* ziren, eta askok eutsi nahi zion, gauza berelzi bezala, bere funtsezko kontzeptuetan oso espainiar hutsa bazen ere, eta hau politikaz bestaldera jokatuaz. Ja-kina, Sabinok bere politikarako hartu zuen; baina puntu honetan ba dakigu nork influentziatu zuen. Bere politika programa egitean, Li-zarrak\* Aita Iberogana hainitz osterak\* egin zuen; eta batez ere harek kutsatu zuen arrazazale bezala, eta, seguru asko, bai eta kle-rikalismoa ere, neurri handi batean behintzat.

Beraz, Aranaren joerak, Larramendi, P. Astarloa eta A. Ibero ditu iturburu. Hoietarik, lehenengoaren jokera hain zuzena ez bazen ere, ondorengo biena okerrago noski. Baina, oraindik ere arraza za-letzat juzgatzen gaituzten espainiarrek, jakin bezate beren herentzia izan dugula puntu honetan.

Dena dela, aitortzen dut, azterkizunok ez direla hain ximpleak, eta literaturatik aparteko historia ere hobeto ezagutu beharra du-gula.

Literaturan garbikeriatik jarraitu dutenak, beti izan dira kulturaz guti hornituak edo kopeta laburrekoak. Berek nahi zuten euskara, anti-erdara zen. Baina «anti» ziren aldetik, beren konparazioetan, erdaraz hola zena euskaraz hala behar zuela, eta horrelako jokabidez erdara bera hartzen zuten oinarri; zeren\* erdaratik ikusten balt zituzten gauzak, euskararen munitik beharrean. Adibidez, gaztela-niatik askoz hurbilago dago Loraila («mes de las flores» Ideakoa) Jatorragoa den Maiatza («mayo» pagano zaharretikakoa) baino; bai-na «garbizaleen» mundu txikian bestaldera behar zuen izan. Gainera, maiz,\* hitz berriak asmatzen zituzten, bakoitzak berak ezagutzen zuen euskara txikitik ikusita, lehendik beste euskalkiren\* batean eratua zegoen ala ez begiratu gabe. Baina, kritika honetan, alde honetatik abiatuko bagina, inoiz bukatu ezindako jardunetan eroriko ginateteke.

JUAN SAN MARTIN

bezate, bele  
dauku, deusku, digu  
daut, deust, dit

ditzake, daizez  
gaude, gaogoz